

JUAN KARLOS ARRUTI ▶ 'Patera' 15 urte kartzelan



AZPEITIKO REALA



ORBEGOZO, LARRAÑAGA, ARANBURU ETA LABAKA: BI GARAITAN BI HERRITAR REALEAN

CENTERPOINT ACADEMY

Ingelesko klaseak haur, gazte eta helduentzat
(goiz eta arratsalde)

- Cambridge, HEO, TOEFL
- Enpresetarako ingelesa
- Helduentzat maila guztiak
- Eskolako ingelesa

ZATOZTE!!!

Foru ibilbidea 7-1ezk

943 81 65 03

Clotilde - Staine Square
Victoria - Charing Cross
Flores - Street - Bank



Uargi

MERTZERIA
LENTZERIA
KORTSETERIA



Julian Elorza 15, behea Tel. 943 08 05 1



mugi
kirolak



Enparan kalea 8, Tel. 943 - 151004

hitza

errazago banatzeko
azkarrago jasotzeko

ekarri GILTZA

UZTARRIaren egoitzara, Julian Elorza 4, beheara



ODONTOLOGI
OROKORRA

- > Bideo bidezko diagnostikoa
- > Erradiografia digitala
- > Hagin-ateratzeak (azkenaginak...)
- > Endodontzia
- > Peridontzia
- > Garbiketa
- > Aho erreabilitazioa



HORTZ KLINIKA

Antonio Rafaniello

389 Koleg.

Enparan 8 - 1 Tel.: 943 81 67 36

ODONTOLOGI
ESTETIKOA

- > INPLANTEAK
- > Koroak
- > Ahoko zubiak
- > Karilak
- > Hortz zuriketa
- > Protesi finkoak eta mugikorak
- > Odontologi tratamendu integralak

Hiruko txikian ▶ Iban Arregi

Azpeitia nongo hiriburu?

1 Gipuzkoako hiriburu izaten segitzen dugula esan omen zuen Azpeitiko zinegotzi batek Donostian. Baina Azpeititik gazteak alboko herrietara doaz, etxebizitzak merkeago dauzkatelako; tailerrak alboko herrietara daramatzagu, industria lur hobeak eta merkeagoak dituztelako; kultur-azpiegiturarik ez, parte zaharra abandonatuta... Gainera, hiri egoki batek, R. Rogers arkitektuaren arabera, "garraio publikoa eta bizikleta oinarri" izango duen "garraio politika integrala" behar du...

2 Ondo hausnartu eta politika egin behar du instituzio batek. Diskurtsoa bai, baina neurri politikoak ere bai. Aurten, beste behin, aurtorik gabeko egunak antolatu dizkigu Azpeitiko Udalak. Diskurtsoa badugu, eta hausnarketa ere bai igual, baina neurri politikorik ez oraingoz, "garraio politika integralik" ez. Azkoitian bidegorrien sarearekin inauguratu zuten mugikortasunaren astea. Hemen, ekimen sinboliko batekin, Aratz-Errekara egindako bizikleta irteerarekin. Atzetik orain ere?

3 Dena dela, Azpeitia ere ari da *hiritartzen*, ari da mestizatzen; gero eta etorkin gehiago badaude behintzat. Hori berez ona da herriarentzat. Baina azpeitiarrok (ere) ez dugu erronka makala eskuartean: datozenen integrazioa, zentzurik zabalenean; kultur aniztasuna errespetatuz, baina, batik bat, gure identitatea errespetatuz. Eta bai, gure esku ere badago hori. Beste herri batzuetan bezala, Azpeitian (ere) ondo hausnartutako politika bereziak beharko ditugu. Baina lekutan gaude...

uztarria

UZTARRIAREN DATUAK ▶

Argitaratzailea. Uztarrria Azpeitiko Kultur Koordinadora

Egoitza. Julian Elorza Hiribidea 4 behe, eskubia (Azpeitia, 20730)

Telefono eta fax zenbakia.

943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 55.a (2004ko urria)

Urtea. VI.a

Maiztasuna. Hilabetekaria

Web orria. www.uztarria.com

Diseinua. hitzeko

Publizitatea.

▶ 699 64 66 01

▶ uztarria@uztarria.com

Bazkidetza-Harpidetza. 15 03 58

Tirada. 2.400 ale

Inprimategia. Gertu

Azaleko argazkia. Kepa Urbiet

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldzikarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



Guk zerbizua eta lana euskaraz

[U-iritzia]

08 Inkesta. Herriarrek ikastolen eta euskararen festetara joateko ohiturarik ba al duten galdezka ibili da Uztarrria.

10 Artikuluak. Alaitz Olaizolak hilero idatziko du, Pako Aristiren partez, eta Koldo Aldalurrek bi hilean behin.

[U-mamia]

10 Ikasleak. Urrian hasten dira unibertsitatean klaseak. Ikasleak mintzo etxetik kanpo egoteaz, bidaiez...

14 Klik. Triku Festa izan zen herrian eta hainbat kontzertu eskaini ziren.

24 'Pattera'. 15 urte daramatza kartzelan. Elkarriketa egin diogu.



[U-jakiteko]

26 Apaiz bidea. *Paseo de los Curas* edo apaiz bidea desagerrarazten ari dira, tailer pabilioi bat egiteko bertan.

[U-euskara]

36 Osasungintza. Garcia sendagileak liberazioa hartu zuen euskaraz ikasi eta horrela gaixoei hobeto komunikatzeko.



UZTARRIA AZPEITIKO HERRI
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK ▶
(erakunde publikoak)



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



Enbido ▶



Alaitz Olaizola

Aupa hi!

Aupa hi! Zer zioten urruneko sentimenduek aspaldiko partez? Nola ikusten gaitun? Berdin? Aldatuak? Zer usain dugu, edo, akaso, kiratsa da?

Ezin dinat objetibotasunez ikusi, zera horren partaide izanda. Hik argiago ikusiko dun, akaso. Baze kinat zer esango dunan. Ukitu batekin erortzen den kartazko dorrearen moduan bizi garela. Horri, '*fragilidad*' esaten omen zaion. Ez zekinat.

Ba! Kontzientziaren roiloak ditun, gaurko gaizki eginaren biharko buelta. Eta zer nahi dun ba esatea? Aguantatu egin behar biziko bagara!

Gurean, udak eman din berea. Azken ostikoak ematen ari dun eta udazkena gainean dela diote Loiolan lurrera erortzen hasiak diren hosto lehorrak. Hauek, umetan gehiago maite nizkinean. Orain, lana baino ez zidaten ematen. Umetan, jolasarako zitunan, orain, eguna joan eta etorri, jasotzeko baino ez. Milaka izango ditinagulaster. Horri, '*trabajo*' esaten omen zaio.

Udan izan ez ditudan oporrak ematen bazizkidan udazkenak...

Ez al dun uste mereziak ditudala? Ez ezan adarrik jo! Baietz ba, ni ere nekatu egiten naun, hi!

Gainera, badakin nolakoa den herria. Festak pasatu eta hilda geratzen dun! Bazeukan gauza on bat: kotxea aparkatzea errazagoa dun. A zer abantaila, batez ere niretzat, kotxerik ez dinat eta!

Kotxea aipatu dinat. Duela urtebete esan ninenan kotxerik gabeko eguna ospatzen zela; orain, berriro, kanpaina horretan gaitun. Egia esango dinat intimitatean: ez dun ezer aldatu. Duela gutxi Landetako gabezien berri eman ninenan. Espaloi berria egin diten, eta badakin? Orain kotxeak aparkatzen dizkinate bertan. Kuriosoa, ezta? Ez, ez haiz konturatu, ez haiz bertatik pasatzen eta.

Akordatzen al haiz joan den urtean nola kendu ziguten Bilborako Pesa autobusa? Pentsa ezan pixka bat, hi ere bertan ibili haiz eta. Makina bat

gera eman ninenan kontu hori zela eta. Aurten, abutzuko ordutegia zela eta, Donostira joaten ibili gaitun, Bilbora joateko. Pentsa ezan nolako amorrua, Zarauzko bidesaritik bitan pasatu, helburutik urrundu aurrena, gero denbora eta diru gehiago inbertitu, halako batean helburura iristeko. Ahaleginak onak ditun, baina barru-barruan ea zertarako balio duten galdetzen zionat neure buruari. Horri, '*desastre*' esaten omen zaion.

▶ **HARRITUTA.** Bene-benetan esaten dinat, Azpeitiko jendeak, modu atseginean harritzen nain. Kanean lan egiteak baditin desabantailak, eguraldia esaterako. Baina gurean, jendeak, agurtu egiten hau. "Aio", "eguraldi ederra gaur"..., ezagutu edo ez. Grazia egiten zidan eta, aldiz, sekulako gustua ematen zidan. Horri, '*autoestima*' esaten omen zaion. Duela gutxi, gure amak hala esan zinenan: "Zaharrek hitz egiteko gogoia diten, hitz egitera hurbiltzen ditun. Gazte jendea ez". Eta egia dun. Bai jauna, zahar jende majoa zagon herrian. Hi, bale. Zaharra esan dinat, inongo deskalifikaziorik gabe, hi! Hik ulertzen didan... Herri nortasuna diten hauek, guk ez hainbeste. Nolakoak izango gara gu, zahartzean? Gaurkoak bezalakoak ez, seguru. Lastima, ez uste? Horri, '*soledad*'.

Ez haserretu kakotx arteko hitzak erabiltzen ari naizelako. Hitz potoloak ditun, unibertsalak. Behin batek kontatu zidan halako pasarte bat. Gizon batek besteari lapurra deitu zionan. Honek, haserre, epailearen aurrera eraman eta epaileak esan:

– Zer dela-eta deitu diozu lapurra?

– Hala delako.

-- Zuk ez al dakizu, horrela izanda ere, hitz hori inori esatea oso zatarra dela?

– Erabili ezean, zertarako dago bada hitz hori?

Horri, '*humor*' esaten omen zaion.

Gurea herria, herria gurea. "Hesirik gabeko baratzea, guztiona". Horregatik esan ninenan, objetibotasunez ezin begiratu. Eta nik ere, hesirik gabeko herria nahiago.

Hala dun, mila hitz. Mila hitz egingo ditinagu ahal bada beste urtebetez. Izango dun nire berri hilerio, nahi badun behintzat. Bitartean, ongi bizi!

HILEKO ESAERA ▶

Hesirik gabeko baratzea, guztiona

Bi egunkari bakar batean

berria

Informazioa

Informazio landu eta argigarria,
diseinu berritzaile batekin emana



Txillidaren 200 obra Europar ikusgai

Eduardo Txillidaren 200 obra europar ikusgai. Txillidaren 200 obra europar ikusgai. Txillidaren 200 obra europar ikusgai.



...eta gainera



- MANTANGORRI:**
Larunbatetan
16 orrialdeko gehigarri koloretsua
haur eta gaztetxoentzat



- IGANDEA:**
Asteko albisteak
patxadaz aztertzeo aukera.



- EGITURA:**
Igandeetan 16 orrialdeko
ekonomia gehigarria



t
tartea

Astialdia
12 orrialde egunero
Gertuko gaiak
Elkarriaketak
Erreportaiak
Kronikak
Mendia
Moda
Gastronomia
Jaiak...



Koldo Aldalur

Japoniarren kezka konpartituak

Gurean da aurtengoan ere Hiromi japoniarra. Japoniar totala. Filologoa da eta hizkuntzak han eta hemen ikasi eta ezagutu eta gero, haiek maitatzera heldu ohi da. Hori gertatu zaio behintzat euskera-rekin.

Hiromik Tokion izan zuen lehendabiziko aldiz euskararen berri Susuko Tamura andereñoaren eskutik. Hura ere Azpeitian ibilia zen eta gure hizkuntza ikasteko harra barru-barruraino sartu zion. Gero, Lazkao eta Hondarribiko barnetegietan egonaldi luzeak egin ostean, gurera azaldu zen eta harrezkero hemen dabil denona eta inorena ez den kupeletik edaten. Eta horretantxe da artista gure Hiromi. Ez edaten, baizik eta ondoan duenari zukua ateratzen. Laster igerriko dio, ikusi orduko, Ataunen sortu arren erabat azpeitiartuta dugun al-baiteroari milaka istorio dituela kontatzeko eta aparteko trebezia mila eratan kontatzeko. Berehala antzemango dio Erdi kaleko dendariari adarra jotzeko eguna duen edo Realak galdu duelako serioago ote dabilen. Kolpetik itxura hartuko dio azokara hurbilduta ekarritako gehiena saldu ondoren ea baserritarrak berriketarako gogorik baduen ala ez.

Horretantxe da artista gure Hiromi. Berriketa non, bera, erne eta puntual, han.

▶ **EUSKARA.** Eta hainbesteko komunikazio beharra duenez, euskararen langa zeharkatzen ahal legin ikaragarria egiten du. Aditzen paradigmak "entzun diezaioket" ikasi eta gero, "entzun ahal diot" ikasi zuen, eta "entzuterik badut" geroago eta "aituko diot berak nahi badu"-rekin dabil orain eguneroko borrokan.

Euskararen paradisuan, ordea, dena ez da *max-ma*. Azpeitiko ikastola, eskola publiko eta erlijio-soetan gure seme-alabek ahotan darabilten hizkuntza mailak edonor kezkatu beharko luke. Hiromi behintzat, bai.

- Ainhua, pasaiek koadernue.
- Eon ai ixilik Miren, atzo eman ez nian ba.
- Nei berdin zik. Nahi dekana ein zak.

Hiromiri bi belarriak sutan eta anima lurrean geratzen zaizkio horrelakoak entzunda. Kanpotik etorri ohi da urtean behin gure herrira eta honek Arauntzatik begiratzeak ematen duen ikuspegia ematen dio. Uste dut 'perspektiba' esaten zaiola. Aurreko belaunaldietakoak ikusten gaitu, geure traketsen, lagunei eta seme-alabei hika hitz egiten eta zoragarria iruditzen zaio. "Munduan den hizkuntza bakarra da generoa horrela bereizten duena", dio. Paregabeko altxorra eta ez dakigu transmititzen. Matxismoaren ereduak errepikatzen dituzte irudi liberal bezain freskoa duten kezkatxoek. Eta mutilek.

▶ **DESAGERTZEKO ARRISKUAN.** Eta martxa honetan hil egingo zaigu, zergatiak ezagutu aurretik. Gazteek beste mila gauza darabilzkitelako buruan trabaz beteriko gizarte inkomunikatu honetan, gurasook kontzientziarik ez dugulako horrelako gauzetarako, geure ezjakintasunean eta harrokerian itota, "Azpeitiyen euskerak ez dik kuidorik" esaten dugu lasai. Ikastetxeetako arduradunek gure hizkuntza eta kultura zaintzea baino gauza garrantzitsuagoak zientoka dituztelako eta, besteak beste, gure diruak gobernatzen dituztenek 'arduradun' hitzaren berezko zentzua aspaldi ahaztu dutelako. Hurrengo hauteskundeak hurbildu arte, behintzat.

Eta horrela, Xabier Leteren ahotik entzun genuen moduan, "burdin okerra zuzen lezakeen doktrinarikan ez dut nik" botako dugu, eta, kontzientzia bareturik, Hiromirekin pare bat pote hartzera joango gara Erdi kalera. Pare bat edo dozena eta erdi, ikusiko dugu.

Eta horrela, datorren hilabeteko Uztarria hartzen dugunerako gure japoniarra Tokion izango da, han dituen bi ikasgeletako euskara ikasleei gure generoaren berezitasunak irakasten. Neskentzat badela mutilentzat ez den tratamendua, eta altxor hori duen hizkuntza bakarra euskaldunok dugula. Geu konturatzen ez bagara ere.

Ikastetxeetatik buelta txiki bat egiteko asmoa badut, ea gai honetaz zer plan duten jakiteko asmoz. Kontatuko dizkizuet erantzunak hurrengotan. Erantzunik bada.

Ah! Eta Hiromi kalean ikusten baduzue, ez esan berari buruz idatzi dudala, ikaragarri lotsatia da eta. Japoniar totala.

HILEKO ESAERA ▶

Kanpotik etorri behar begiak irekitzera

Zeroak

▶ **Orain dela sei bat urte idatzi zuen artikulu hau Jon Sarasuak, *Egunkaria*-n. Azpitiko Udalak *Urola-Kostako Hitza*-ri batere eurorik emango ez diola eta, Uztarriari iruditzen zaio interesgarria dela Sarasuaren gogoeta berreskuratzea.**

Gorriek eta zuriek aipatzen dute euskaren biziberritzean estrategiak berrikusi behar direla. Gogoeta egin eta zehaztea falta da. Har ditzagun, adibidez, euskarazko hedabideak. Indarrean dagoen eredu zera da: telebista, monokultiboa (ETB); irratan, nagusi-kultiboa (EI); prentsan, prekarietatea.

Demagun estrategia berriak eskatzen dituela egoerak. Telebista-eskaintza beste era batera planteatzea, edo herri-telebisten espazioa hartzeko euskal proiektuak serio bultzatzea, adibidez. Edo irratan dialeko aukera aniztasuna bultzatzea. Edo prentsari eta bere euskarri berriei pisu espezifiko berria ematea. Demagun, ildo aldaketak beharrezko ikusten direla, gogoeta egin ondoren.

Horrek aurrekontuetako zeroak aldatzea eskatuko luke. Adibidez, EITBk 11.000.000.000 pezeta publiko irensten ditu urtean, Kultur Sail osoaren erdia. Sailaren beste erdiko zeroak nola banatuta dauden ere, aski ezaguna da. Jakina, zeroak aldatzea da politikarien funtsezko gaitasuna. Zeroak dira asmo onak ildo bihurtzeko tresna. Zer gertatzen da? EAEko kultur agintariek ez dutela zeroak aldatzeko gaitasun politikorik. Interesak, presioak, alderdiaren barruko indar erlazioak, beraien borondate on baina ahula... Kontua da zenbaki txikiak bakarrik mugitu ditzaketela, ez ardatzak, ez zeroak. Hedabideena adibidea zen, kulturako beste epigrafe guztietan ere gauza bera gertatzen da.

Egia da beren [Eusko Jaurlaritzaren] Euskararen Aholku Batzordea inoiz baino zabalagoa dela, batez ere batzordeak sortu dituztenean. Hori zoriontzekoa da. Nire kezka da Aholku Batzordearen ildoak ere horrek bahituko dituela: zeroak mugitzeko gaitasun faltak Posible omen denaren barruan pentsatzera mugatuko direla; hau da, kultur agintarien gaitasun falta horren barruan, Aholku Ba-

tzordea, beste elkarteen kinka berean aurkituko da: zeroen mugiezintasuna irentsi eta gelditzen den esparru txikian konbinaketak egiten. Badakit hori ere positiboa izan litekeela.

Baina, benetan, zer nahi dugu? Nor eta zenbat gara hori nahi dugunok? Ildoak berrikusteko garaia da. Ezin dugu pentsamendua bahitu oraingo agintarien ezintasun numeriko-politikoan.

Askok esango dute zeroak aldatzeko gaitasunik ez duen agintariari berari jarri behar zaiola zeroa. Nik uste bira edo hirua merezi dutela Euskararako Sailordetzakoek, komunikazio eta ahaleginagatik. Baina nahikora, bostera, iristeko zeroak tokiz mugitzeko gaitasuna behar da. Sentitzen dut. Esango dute gustoko kirola dela agintariei egurra ematea. Eta ez, osasungarri eta lasaigarria da iritzi ona izatea. Baina, benetan, euskararen garapenak zeroak dantzan jartzea eskatzen duela uste dut. Eta euskalgile gehienek hala pentsatzen dutela iruditzen zait. Aprobaturik ez eskatu. Baina, hala ere, numero txikiak mugitzeko ere, elkarlanerako prest.

2005ean zergatik ez euskarazko agendak eta egutegiak?

Etxean, bulegoan, eskolan, dendan, elkartean...

AGENDAK

- ▶ Ikastetxeentzat irakasle agendak eta ikasle agendak
- ▶ Enpresentzat langileentzako agendak
- ▶ Erakundearen irudia jartzeko aukera

EGUTEGIAK

- ▶ Poltxikokoak, zutikakoak, zintzilikatzekoak
- ▶ Irudia jartzeko aukera bezeroei oparitzeko

hitzeko
euskara eta komunikazio zerbitzuak

Goiko kale 5, 3A
Tel.: 665 723979
hitzeko@hitzeko.com

itzulpenak - euskara planak - komunikazioa - produktuak

Trauskil ▶ Jon Berdejo



Galdetuz ▶

Ikastolen
aldeko
festetara joan
ohi al zara?

AMAIA AGIRRE ▶
azpeitiarra



"Lehen banuen joateko ohitura, baina aspaldian, egia esan, ez naiz joaten. Izan ere, ume txikiekin-eta zailagoa egiten zait horrelako festetara mugitzea".

ARANTXA GALARRAGA ▶
erreizildarra



"Kilometroetara joateko ohitura badugu oraindik. Lehen gehiagotara joaten ginen, beste

ikastolen festetara ere joaten ginen, baina orain gero eta gutxiagotara joaten gara".

MANOLI ETXEBERRIA ▶
azpeitiarra



"Lehen beti joaten nintzen Kilometroetara eta Ibilaldira, baina orain ez naiz

batare joaten, ohitura galduta dut horrelako festetara joateko".

JOXE LUIS LIZARZA ▶
berastegierra



"Azkeneko pare bat urtean ez naiz joan, ume txikiak baititugu. Aurreneko

Kilometroetara beti joaten nintzen".

Hau ▶

Lortuko dugu



Aitor aranguren

Ez dago dudarik, planeta berotzen ari da... eta azkarregi. Horrela dio National Geographic-ek iraileko zenbakian, eta biziki gomendatzen dizuet honen irakurketa. 1997an klima aldaketari aurre egin nahian sortu zen nazioarte mailan Kyotoko protokoloa. Helburua berotegi-efektua eragiten duten gasen isurketak murriztea da. Gas horien isurketak (gehienbat CO₂) planetako tenperaturaren handitzea dakar, eta adituen iritziz, ondorio larriak ditu, besteak beste, glaziarren atzerakada, itsas mailaren gorakada... 2020. urtean duela hamar urte baino %50 berotegi gas gehiago isuriko da atmosferara, eta egungo adibideak ipintzearen, Artikoa izotza orain hogeitun urte baino %40 gutxiago da, urtean %3 urtzen da. Kanada eta Groenlandia arteko itsas pasabidea urte osoan izoztuta egoten zen lehen, orain libre geratzen da udan.

Berotegi-efektua eragiten duten gasak sektore hauek isurtzen dituzte EAE: energia (%33), garraioa (%25) eta industria (%22). 1990etik 2002raino, industriaren isurtzeak murriztu egin dira (%29), baina garraioarenak eta energiarenak nabarmen hazi (%77 eta %104).

Poloetako izotza eta glaziarrek urtu eta itsasoen mailak gora egiten dutenean, itsas ertzeko herriak ur azpian desagertzeko arriskuan egongo dira; Donostia, kasu. Garai batean Azpeitia Gipuzkoako hiriburua izan zela? Eta izan daiteke oraindik! Bizkor dezagun klima aldaketa energia gehiago kontsumituz, industria kutsagarrienak herrian kokatuz eta handik hona errepideak eginez auto gehiago eta zilindrada handiagokoak eros ditzagun (azpeitiarrok honetaz zertxobait badakigu) eta kasurik ez egin oinez edo bizikletaz ibiltzeko gomendio atzerakoi horiei.

Hasi gaitzen lanean. Donostia ur azpian desagertutakoan, Azpeitia berriro Gipuzkoako hiriburua. Lortuko dugu.

Apunteak ▶

GORA.

Aurten ere egin da Triku Festa musika jaialdia. Aurten, gainera, plazan karpa eta guzti. Ekimenak interesgarriak direnean, lagundu egin behar direlako.

BEHERA.

Herrian bada emakumeen mahai bat, eta bertan, batik bat, emakumeei zuzenduriko ekintzak antolatzen dira. Horien berri ematea oso ongi dago, baina bada garaia ekintzen berri emateko gutunak gizonetzkoen bidali beharrean emakumeei bidaltzeko.



Mugikortasun asteko hitzaldietako bat. IHINTZA AGIRRETXE

GALDERA.

Zer pasatzen da Azpeitian hitzaldiekin? Azkenaldian ia ez da jenderik azaldu; gehienez ere, 15 lagun. Zerk, zeinek hutsegiten du?

Uztarria.com ▶

Inkesta.

Nork erabaki beharko luke zeintzuk bota saninazioetako txupinazoa?

- ▶ **Udalak.** %15,2.
- ▶ **Herriko taldeek.** %57,2.
- ▶ **Zozketa bidez.** %8,6.
- ▶ **Alkateak bota beharko luke.** %2,4.
- ▶ **Beste batzuek.** %6,8.

Orain dagoena.

- ▶ **Inkesta.** Lanera itzultzeak zer eragin du zugar?
- ▶ **Eztabaida.** Kurtso politiko berria hasi da Azpeitian ere. Zer itxaropen duzu?

Hemeroteka ▶ Xabier Saldias (abeslaria; 'Berria' 2004-08-31)

Plazatik plazara

Zaila da esatea zein dudan plazarik gustukoena. Mutriku bat, lurreta bestea eta Peruri, Leioako auzo bat. Baten bat haserretuko zait baina... Mutriku urtero izaten gara Eganekook, eta plaza ederra da. Perurin oso giro herrikoa izaten da, eta lurretan, beriz, sekulako jendetza.

Zailena den? Azpeitia; norbere herrikoa zaila da beti. Igual, saninazioetan ez garelako joaten. Beti inauterietan edo sansebastianetan. Plaza ere deserosoa da erabat. Kiosko bat, kaiola baten modukoa. Jendea ere, tabernen kalean pasaeran ibiltzen da, eta ez da geratzen... Azpeitian, gainera, saninazioetan, beti kanpokoak ekarri behar dira, eta diru asko pagatuta. Ez dakit, bertakoa gutxiago bezala hartzen dute.

Hara, datorren urtean 35 urte dira Egan sortu zela, eta gustatuko litzaidake hasierako Egan harekin Az-

peitian emanaldi bat egitea. Gu Javier Madinari laguntzen hasi ginen 1970ean, eta estreinaldia uztailaren 30an izan zen, San Inazio bezperan, hantxe, Gautxorin. Hura oroituz, Javier Madinarekin eta hasierako taldekideekin (Jose Luis Frantzesena Azpeitiko Bandako zuzendaria, Alberto Frantzesena anaia eta Iñaki Arenas) emango nuke gustura emanaldiren bat.

(...) 1980. urtean etorri nintzen Donostiara bizitzera. Egunean egunekoa bizitzea gustatzen zait, eta erabaki dudanarekin aurrera jotzen dut, ez naiz beti atzera begiratzen duen horietakoa. Nagoen tokian ahal den ondoena bizitzen saiatzen naiz eta ahalik eta lagun gehiena egiten. Azpeitian nengoela ere, herri asko pasatu genituen, eta horrek nomada bihurtzen zaitu. Azkenean, herri guztietakoa zara.

Apaiz eskasia

Bada aldaketa parrokian titulua zuen Imanol Eliasek uztailleko zenbakirako idatzitako artikulua. XVIII. mendearen azken laurdenean bildutako datuak aipatzen zituen bertan. Garai hartan, oker ez banago, Parrokia inguruan 18 lagun bizi ziren herriaren zerbitzura. Eta gaur egungo egoera gogoan harturik honela dio amaiera aldera: "Urteak igaro dira eta bai gauzak aldatu ere, nahiz eta biztanleriak gora egin".

Antzeko datuak jaso nituen nik duela 6 urte inguru, Lazkaoko Beneditarren etxean, bileren ondoren. 1929. urteko Elizbarrutiko aldizkarian irakurri genuenez, 13 apaizek osatzen zuten Parrokiako Apaiz taldea, herriko elkarte erlijiosen zerbitzura beste 7 apaiz ari ziren lanean.

Gure artean azken 30-35 urte hauetan nabarmendu den aldaketa hau ez da hemen bakarrik gertatu. Gure begirada zabalduko bagenu, antzeko egoerekin egingo genuke topo Gipuzkoan, Euskal Herriko Elizbarrutietan, Europa osoan.

Aldatu egin dira gauzak, gogoeta gai bihurtzeraino. Gogoan hartu zuten gai hau duela 13 urte, apaizgintzarako bokazioen murriztea zela eta, garai hartan Hego Euskal Herriko Elizbarrutietan Gotzain zirenek, elkarturik idatzi zuten *Elizbarrutiko apaizak: premia larria* izenburua zuen idazkian.

Gogoeta gai ez ezik, etorkizunerako erronka ere bihurtu zaigu hau. Izan ere, azken urteetako joera mantentzen bada, harritzekoa litzateke kontrakoa gertatzea, oraindik gehiago urrituko da hurrengo urteetan, gure artean, apaizen kopurua. Elkarren artean gertu dauden parrokien arteko elkarlana bideratu beharko dugu; laikoaren ardura-kidetzari bideak zabaldu beharko dizkiogu... Gipuzkoako hainbat lekutan hasi dira dagoeneko zenbait urrats egiten. Guk ere gertu behar dugu.

◀ Eta beste



Kepa Susperregi



unibertsitateko BIZIA


Unibertsitatean hasteko garaia izanik, gazte askok kanporako norabideak hartzen dituzte

► Testuak eta argazkiak: Ainitze Oruesagasti eta Ihintza Agirretxe

Gazteak batxillergoko ikasketak bukatu eta hainbat aukera ditu bere aurrean. Alde batetik, goi-mailako ikasketak dauzka, eta, bestetik, unibertsitatea. Ikasteko batera jo, bestera jo, gazteek bizimodua aldatu behar izaten dute, kanpora joaten direlako. Batzuek astea pisuan pasatzen dute, beste batzuek eguneroko joan-etorria egiten dute autobusez. Badira, ordea, etxera opor garaian baino ez direnak itzultzen; bekez baliatuz, herrialdeak ezagutu eta euren ikasketak etxetik urruti egiten dituztenak dira horiek.

► **DATUAK.** Azpeitiko hiru ikastetxeetan batxillergoko ikasketetako hiru adar egin daitezke: natur eta osasun zientzietako adarra, giza eta gizarte zientzien adarra, eta adar teknologikoa. Iraurgin, Karmelo Etxegarain eta Ikasberrin 2003- 2004ko ikasturtean guztira 123 ikaslek bukatu zuten batxilergoa. Haietatik 75ek natur eta osasun zientzien adarra egin zuten, 33k giza eta gizarte zientziena eta 15ek teknologikoa.

Gero bakoitzak bere bidea hartzen du. Uztarriak lau azpeitiar gazterengana jo du, kanpoko esperientzia horretaz mintzatzeko.



ARITZ EPELDE ▶ Ingeneritzako ikaslea Arrasaten

“Hasieran **ez zen erraza izan** elkarbizitzako trikimailuak topatzea”

1 Ikasketak. “Ingeneritza Industrialeko laugarren mailan hasi behar dut aurten; karrera hau bost urtekoa da. Aukeratzeko garaian, gaiak izan nituen kontuan; izan ere, gustuko nituen hemen ematen direnak. Karrera hau ez nuen gustukoena hasiera batean. Nik gustura ikasiko nuen Filosofia edo antzeko karreraren bat”.

2 Unibertsitatea. “Unibertsitate batzuk bisitatu nituen baitxilergoko bigarren ikasturtean. Eta haien artean Arrasateko Uni-

bertsitatea aukeratu nuen arrazoi ezberdinengatik. Alde batetik, bertakoek emandako azalpenak gustatu egin zitzaizkidan eta unibertsitateak berak ere izen ona du. Amaketa lagunek ere bertara joateko animatu ninduten”.



3 Pisu. “Hasieran ez zen erraza izan elkarbizitzako trikimailuak topatzea. Ama faltan botatzen da eta, gainera, zu bezalako beste lau lagunekin bizitzen ohitu behar zara. Hasiera batean bizilagunen akatsekin asko fija-

tzen zara, baina denborarekin dena ohitu behar izaten da. Gu pisuan lau lagun gara eta guztiok koadrilakoak”.

4 Etxeko lanak. “Sukaldean lan gutxi egiten dugu. Prestatzen zailak diren janariak –potajea, berdurak...– amak etxean prestatuta ekartzen ditugu; horrela, nahi dugunean berotu eta jateko. Guk sukaldean haragia frijitu-eta horrelakoak baino ez ditugu egiten, baina lan zailik ez. Bestelako lanak egiteko, zaborra-eta

nork jaitsiko duen noiz, jokoek erabakitzen dute. Ohea, berriz, ez dut egiten, baina desegin ere gutxi egiten dut. Lagunekin pisu batean bizitzeak duen desabantaila nagusia higienea da”.

5 Denbora libre. “Klaserik ez dugunean, unibertsitateko kirol ekintzetan parte hartzen dugu, edo Arrasaten dauden beste azpeitiarren pisuetara bisitara joaten gara, eguraldi ona egiten duenean Udana parkera ... Beti asmatzen dugu zerbait”.



» OLATZ GABILONDO ▶ Zuzenbideko ikaslea Donostian

“Nahiago dut **bidaiari 35 minutu pasatu** autobusean eta etxera bueltatzea”

1 Ikasketak. “Zuzenbidea ikasten ari naiz, eta urrian lau-garren maila hasiko dut. 14-15 urte nituenetik karrera hau egitea buruan izan dut, beti gustatu izan zaidalako jendearekin harremanetan egotea, irakurtzea, paper artean ibiltzea... eta hau letretako karrera izanik, horretarako aukera ematen dit. Legeek eta pape-rek erakartzen naute. Ikasketa hauek egiten hasteko ez zuten selektibitateko notarik eskatzen, eta horrek ere aldea egiten du, egia esan”.

2 Etxetik gertu. “Hasieratik garbi izan nuen Zuzenbidea egingo nuela eta Donostian. Niretzat etxetik gertu izateak ere bere garrantzia du. Gainera, autobuseko ordutegiak ere nire

ordutegiarekin bat datoz eta ez dut, beraz, Donostian pisu batean egon behar hori ikusten. Horretaz gain, askotan pisua Donostian izanda ere autobusa hartu behar izaten da. Nahiago dut bidaiari 35 minutu pasatu autobusean eta etxera bueltatzea.”

3 Autobuseko gorabeherak. “Autobusak desabantaila asko ditu. Garaiz ibili ezean, alde egiten du eta horrek zenbait klase galtzea suposatzen du. Autobusaren zain ere egon egin behar da, jende asko joaten da... Baina dena ez da txarra eta denbora hori ere aprobeitza daiteke, apunteak irakurri ariketak egiteko, musika entzun... Neguan elurra egiten duenean autobusa aitzakia ona da klasera ez joateko”.



MAITANE LOINAZ ▶ Itzulpengintzako ikaslea Granadan (Espainia)

“Hasiera **oso gogorra izan zen,** bakarrik iritsi nintzelako”

1 Ikasketak. “Batxilergo bigarren mailako ikasketak bukatu ondoren, herritik irteteko gogoia nuen, eta hasieran beste lagun bat eta biok animatu ginen Granadara (Espainia) etortzeko. Gainera, bertan karrera bera egin zuen beste azpeitiar batekin hitz

egin genuen eta hark ere animatu gintuen. Azkenean, ordea, beste lagunak ezin izan zuen etorri eta neu bakarrik abiatu behar izan nuen. Itzulpengintzako laugarren maila egiten ari naiz. Hau azken ikasturtea izango da dena ongi badoa, eta ikasketak bukatu on-

doren ez dakit seguru oraindik behintzat zer egingo dudan”.

2 Hasiera. “Hasiera oso gogorra izan zen, bakarrik iritsi nintzelako, inor ezagutzen ez nuelako eta, gainera, hizkuntzarekin ere arazo larriak izan nituen hasie-

ERTZAINAK
BERTSOZALE ELKARTEA

Izena emateko deitu 615700766ra

anima zaitez!

klaseak urrian hasiko dira

BERTSOZALE,

Asteazkeneko elkartzen gara
Julian Elorza 4ko ganbaranEkain
ALBAITARI KLINIKAEuskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40Larrialdiak:
943 15 16 40Arana, 5
AZPEITIA
Oina, SINAURERLOJU
KONPONKETAK

Tel.: 943 81 47 12

GAIZKA ZUBIZARRETA ▶ Psikopedagogiako ikaslea Sevillan (Espainia)


“Sevillan jendea oso lasai bizi da eta **uste baino hobeto moldatu naiz**”

1 Ikasketak. “Iazko ikasturtean Magisteritzako lehen hezkuntza bukatu nuen, eta aurten psikopedagogia hasiko dut Sevillako Unibertsitate publikoan. Iaz Sicue Seneca beka baten bidez joan nintzen Sevillara ikasketak bukatzera, eta oso gustura ibili nintzenez, bertan beste bi urterako planak behintzat egin ditut”.

2 Hasiera. “Nik uste baino hobeto moldatu nintzen hasieran. Beldur pixka bat banuen nik Sevillako jendeagatik eta bertakoek euskaldunengatik izan ditzaketan aurreiritziengatik. Baina esperientzia oso bestelakoa izan da. Izan ere, bertako jendeak euskal kultura eta hizkuntzarekiko interesa daukatela erakutsi didate”.

3 Pisua. “Oso ondo moldatzen naiz pisukideekin. Lagun handiak egin gara eta Azpeitian ere izan dira oportetean nirekin. Iaz etxejabearekin arazo txiki batzuk izan genituen eta, hori dela eta, aurtengo ikasturterako pisuz aldatu gara”.

4 Ohiturak. “Gehien ordutegira ohitzea kostatu zitzaidan. Sevillan, Azpeitian aldean bizitzea lasaiago hartzen dute. Ni Azpeitian goiz afaltzera ohitua nengoan, baina Sevillan batzutan gaueko hamarretan kalean *tapak* jaten egoten gara. Bertako jendeak bizitzaren filososia berezia du, esaten dute bizitza bi egun direla: bata festarako eta bestea ere bai. Garbi dago: sevilarr gehienak oso lasai bizi dira”.



ra batean. Izan ere, beraiek bertakotzat hartzen zaituzte eta zu ezin zara moldatu haien hizkuntzara. Lagunak eta familia mila kilometrorra dituzula jakiteak ere ez du laguntzen. Granada beste mundu bat da: beste kultura bat, beste ohitura batzuk... Dena da ezberdina. Baina bertakoak oso irekiak dira eta horrek ere asko lagundu zidan hasieran. Gero konturatzen zara hori beraien maskara bat besterik ez dela, baina hasieran eskertzen da jendea irekia izatea”.

3 Bekak. “Bigarren urtean Pauen (Frantzia) izan nintzen ikasketak egiten, Erasmus bekaekin. Niretzat hura etxean egotea bezala izan zen eta Granadako beste bi urteak Erasmusekin kanpoan egotea bezala. Pauen nengoela etxea gertu nuen eta nahi nuenean joan nintkeen. Granadatik, berriz, kilometro asko daude”.

4 Granadarrak. “Granadara iritsi eta harritu ninduen,

bertako jendea izan zen, eta gero, gainera, neu han tartean sentitzea. Gainera, eguneko zati handi bat kalean egiten dute, parkean... Ez da Azpeitian-eta bezala, ez dago tabernetan egoteko ohiturarik. Granada, bestela, oso hiri interesgarria da. Ikasketak egitera Europatik jende asko etortzen da, eta horretaz gain, Ipar Afriko jende ugari bizi da. Horrela, beraz, izugarrizko ohitura eta kultura nahasketa dago hiri honetan”.

Biele

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

triku festan

MUSIKA

Musikaz blai egin ziren irailaren 23tik 26ra bitartean herriko txoko guztiak: Triku Festa izan zen 4. aldiz eta kontzertu ugari izan ziren ikusgai

► Argazkiak: Uztarria




‘YAKUZI’ TALDEA.

Yakuzi Durangoko taldea izan zen, igande arratsaldean (hilaren 26an), aurtengo Triku Festari karpan bukaera eman zion taldea. Aurretik, beste hainbat kontzertu izan zen bertan.



TEKNIKARIAK.

Kontzertua ondo ateratzeko, beharrezkoa da teknikarien lana. Adi-adi egon behar izaten dute emanaldi bakoitzean.



‘APUNTA’ OÑATZ TABERNAN.



Apunta, azpeitiar eta azkoitiarrez osatutako taldea, ostiral gauean Oñatz tabernan aritu zen. Argazkian, talde horretako abeslaria.

‘ATXUIYA’ JO ETA FUEGO.

Nahiz eta partaideak ez diren musika mundura iritsi berriak, *T* taldearen estreinako kontzertua izan zen. Argazkian, Aitor Bereziartua *Atxuiya* azpeitiarra, *T* talde berriko baxu-jolea.

DJ-AK ERE BAI.

Triku Festan ez ziren rock kontzertuak bakarrik egon entzungai. DJ-ak ere izan ziren, eta horiekin musika elektronikoa entzuteko aukera izan zen.



GARBITZEN.

Asteburuan antolatzaileetako batzuek denetik egin behar izan zuten: barran egon, teknikari lanak... eta, argazkian ikusten den bezala, igande goizean karpa barrua garbitzea ere tokatu zitzaien.

IKUSLEAK.

Igande arratsaldeko azken kontzerturako jendea nekatuta zegoen, eta aulkian eserita ikusi zuten batzuek Triku Festari amaiera eman zion *Yakuzi* taldearen kontzertua.

‘Euskarazko prentsa eta Azpeitia’ liburuaren aurkezpena hilaren 30ean ▶

Uztarrria Azpeitiko aldizkariak bost urte beteko ditu azaroaren hasieran, eta *Euskarazko prentsa eta Azpeitia* liburuak argitaratuko du.

Zergatia. Azkeneko mendean, herritarrek euskarazko prentsaren alde lan asko egin dute; Uztarriak hori ezagutzera eman nahi du.

Helburua. Azpeitiarrak euskarazko prentsak daukan garrantziaz oharraraztea, eta honen aldeko kontzientziazioa zabaltzea.

Egilea. Uztarrria Kultur Koordinadora.

Osagaiak. Erreportaia historikoa, mahaingurua, elkarrizketak, iritzi artikulak, herritarren gutunak, argazkiak...

Orrialdeak. 176.

Aurkezpena. Urriaren 30ean (larunbata), 12:00etan, Aitonena I-en.

Salneurria. 8 euro*.

***Uztarriako bazkideak.** Ez dute ordaindu beharrik izango, Uztarriak etxera banatuko dielako aurkezpenaren bezperatan.

Jon Alberdi OnLine

Triku Festa egon dela eta, uztarrria.com-ek elkarrizketa OnLine egin zion Jon Alberdi musikariari. 14 galdera erantzun zituen. Irakurri nahi dituenak, hortxe dituzte webgunean.

‘Takolo’ 2. edizioa

Uztarriak Joxe Urbieta *Takolo* mendizalearen biografiaren bigarren edizioa aterako du. Aurreneko edizioa 2001eko maiatzaren atera zuen, eta 1.500 aleak azkar agortu ziren.

urrian egingo da uztarriaren III. KULTURALDIA

Urrian egingo dute Uztarrria Kultur Koordinadorako taldeek Kulturaldia; III.a. Protagonista azpeitiarrak eta Azpeitiko taldeak izango dira, eta talde horiek urte osoan egiten duten lanaren isla izan nahi du.

EGITARAUA ▶

Urriak 8 (ostirala). Zuri & Beltz taldearen kontzertua, Oñatz tabernan. 22:30ean.

Urriak 9 (larunbata). Bertso afaria, Lagun Onak M.B. tabernan. 21:00etan. Joxe Agirre, Joxe Lizaso eta bertsolari sorpresa.

Urriak 15 (ostirala). *Doinu*



Zuri & Beltz jazz taldea.



Lakrikun antzerki taldea.

Uztarriaren bazkaria ▶ Urriaren 30ean (larunbata)
▶ Deialdia, Uztarrria zale denentzat ▶ Tokia jakinaraziko dugu laster ▶ Eman izena Uztarriaren urriaren 23rako



Joxe Lizaso bertsolaria.



Literatuztaren emanaldia.

zahar bertso berri. Kitarris-ta taldea eta Erriarraitzen arteko emanaldia. Oñatz tabernan, 22:30ean.

Urriak 21 (osteguna). Xabier Bordaren *Birika zatiak*, liburuaren aurkezpena Sindikatuan, 21:00etan.

Urriak 22 (ostirala). Rock taldeen eta Literatuzta taldearen arteko emanaldia. Udaletxe azpian. 22:30.

Urriak 23 (larunbata). *Lakrikun-en 10. urteurrena* antzezlan eta antzerki amateurren jaialdia. 20:00etan plazan. 22:30etan Ttakunpa taldearen kontzertua.

Urriak 30 (larunbata). *Euskarazko prentsa eta Azpeitia* liburuaren aurkezpena, 12:00etan, Aitonena I-en. 14:30ean Uztarrria zaleen bazkaria. ◀

U

984

bazkide gara
dagoeneko
Uztarriari;
eskerrik asko
denei

egin zaitez bazkide UZTARRIAN

Zure datuak Uztarriari helarazteko aukerak:

▶ Julian Elorza Hiribidea 4, behe eskubia (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
▶ uztarrria@topagunea.com ▶ Telefonoa (eta faxa): 943 15 03 58 ▶ www.uztarrria.com

IZEN-ABIZENAK ▶

HELBIDEA ▶

TELEFONOA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez*) ▶

NAN edo EHNA ▶

HERRIA ▶

E-MAILA ▶

BAZKIDEAK ▶

Urtean. 24 euro.

Jasoko dituzu.

▶ Uztarrria herri aldizkaria.

▶ *Imanol Elias* eta *Joxe Takolo* biografiak.

▶ *Azpeitiko efemerideak*, erdi prezioan (nahi baduzu).

▶ *Mendi gida*, erdi prezioan (nahi baduzu).

▶ *Literatuzta*.

▶ *Urola-Kostako Hitza*.

*HARPIDEDUNAK ▶

Uztarrria diruz lagundu nahi ez baduzu.

Jasoko dituzu.

▶ Uztarrria herri aldizkaria.

▶ *Urola-Kostako Hitza*.

JOAN...



Gurean ▶

J. M. ODRIEZOLA

▶ idazlea

“Orain gutxi izan nintzen hemen”

Joxe Manuel Odriezola al-tzotar irakaslea eta idazlea irailaren 23an gurean izan zen. *Euskalgintzaren lekukoak* bere azkeneko liburuaren nondik norakoak kontatu zituen Uztarriaren hitzaldian.

Orain dela gutxi ere izan zinen Azpeitian...

Bai, Ikasberri Ikastolak euskal historiografiari buruz antolatu zuen mahainguru batera gonbidatu ninduen, eta orduan ere etorri nintzen, beraz.

Bestela, ezagutzen al dituzu Azpeitia eta azpeitiarrak?

Egia esan, Pako Aristik herri-tarrei egiten dizkien kritiketa-tik eta beste

idazleek idazten dutena baka-rrik dakit. ◀



Miren Odriezola aske

Irailaren 1-2an deklaratu zuten Udalbiltza auzian Garzon epaileak inputatutako 11 kidek; haien artean Miren Odriezolak –argazkian, ezkerrean–. Beste guztiak bezala, aske gelditu zen. Irailaren 22an ateratako beste auto batean, ordea, Garzonek, Miren Odriezola eta Xarlo Etchezaharreta hazpandarra auziperatu egin ditu.



Umeei ere oporrak bukatu

Bukatu ziren oporrak eta iritsi da normaltasuna etxe gehienetara. Umeak irailaren bigarren astean hasi ziren eskolara. Gaztetxoak ere orduan hasi ziren. Eta unibertsitateetan, berri, egun hauetan.

Azpeitiko gazta txapelkun

Aurten ere Ordizian gazta txapelketa izan da, irailaren 9an, eta Landetan dagoen Azpeitiko Ardi Gazta Kooperati-bako *Izarraitz gazta* izan zen irabazle. Argazkian erdian Angel Errasti artzaina.



Mugikortasun astea

Irailaren 16-22 bitartean mugikortasun astea antolatu zuen Udalak. Ekintza ezberdinak izan ziren, jendea gai horren inguruan kontzientzia-tzeko. Azken eguna, kotxerik gabekoa izan zen.



IRAILAK 9 ▶ Ibon Azkune azpeitiarra eta Jexux Mari Errazu Shisha Pagmara abiatu ziren, beraien lehen zortzimilakoa egitera. **IRAILAK 9** ▶ Azpeitiak, Hego Euskal Herriko probintzien arteko pilota txapelketan parte hartu zuen. Uharteren aurka Uhartan bertan jokaturako partidetan, azpeitiarrak 3-0 galdu zuten. **IRAILAK 13** ▶ Urrakiko igoera jokaera jokatu zen, Ander Villariño izan zen garaile. **IRAILAK 16** ▶ Joseba Albizu Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindularia Espainiako Itzulitik erretiratu egin zen.

URRIAK 4 ▶ Gipuzkoako DYAk antolatuta, Azpeitiko sorosle eta lehen sorospen ikastaroa hasiko da. Hiru asteko iraupena izango du eta Loiola'91 eraikinean emango dira klaseak 19:30etatik 21:00ak bitartean.

URRIAK 4 ▶ Erniarraitz Bertsozale Elkartek bertso eskolei hasiera emango dio. **URRIAK 4-7** ▶ Itsasik eskainiko dituen euskal dantza eskoletan izena emateko epea. 17:30etatik 19:30 etara itsasiko lokalean.

URRIAK 8 ▶ Miren Odriozolak Udalbiltza kasuagatik deklaratu du, Madrilén, auziperatua baitago.



GIPUZKOA TONTORRETIK TONTORRERA.

Plan ederra egin dute oraingoan Lagun Onak Mendi Bazkunakoek: urriaren 9-12 bitartean Gipuzkoako itzulia egingo dute, lau etapetan. Gehienez, 30 lagunek har dezakete parte.

URRIAK 9 ▶ 07:00ean ▶ Lagun Onak M.B. elkarteak ▶ Lagun Onak M.B.-k antolatuta

ANA REZA ▶ Azpeitiko Udaleko Gizartekintza batzordeburua

“Nahiz eta **ekintza irekiak izan** oso gizonezko gutxi etortzen dira”

Urtero bezala, aurtengoan ere Azpeitiko Udaleko Gizartekintza batzordekoek ikastaroak antolatu dituzte. Ikastaroak bi eratakoak dira; batzuk ikasturte osoak, urritik ekainera bitartekoak, eta beste batzuk, biruzpahiru hilabeteko iraupena dutenak. Bi eratako ikastaroek oso harrera ona omen dute herri-tarren aldetik.

Ana Reza (EAJ) da Azpeitiko Udalean Gizartekintza batzordeburua, eta ekintza horiek koordinatzeaz arduratzen da. “Horrelako ikastaroak betidanik antolatu direla uste dut, baina 2001. urtean Emakumeentzako Ekintza Positiboen Plana jarri genuen martxan eta horrekin batera ikastaro hauek bultzatu eta sakondu genituen”, esan dio Uztarriari. Ikastaroak, nahiz eta emakumeen mahaian antolatu, irekiak dira.

“Irekiak izan arren, ordea, oso gizonezko gutxi etortzen dira. Bestela, adin guztietako emakumeak datoz ikastera, eta oso aberasgarria da hori”.

Aurtengo berrikuntzak hiru dira: “Alde batetik, pintura artistikoa jarri dugu martxan. Bestetik, barre terapia eta Chi-kung tailerrak daude. Azken bi horietan jende askok eman du izena eta dagoeneko kupoa beteta dugu. Beraz, zozketa bidez erabaki beharko da nork hartuko duen parte.” ◀

URRITIK AUERRERA ▶ Ikastaroak.

- ▶ Arratsaldeak.
- ▶ Tokia desberdinetan.
- ▶ Udaleko Gizartekintza Batzordeak antolatuta.

...ETORRI




Besterik ▶

URRIAK 2 ▶

Txolarteren ikasturte hasiera.

- ▶ 16:30etan.
- ▶ San Miguel Patronatoan.
- ▶ Txolarte.



URRIAK 5 ▶

Judo ikastaroaren hasiera.

- ▶ 16:30etan.
- ▶ Udal igerilekuan.
- ▶ Kimura judo taldea.



BI GARAI, herri bat

1980ko hamarkadan baziren bi jokalaria azpeitiar Realean: Larrañaga eta Orbegozo. Orain beste bi: Aranburu eta Labaka. Uztarriak laurak bildu ditu

► Testuak eta argazkiak: Kepa Urbieto

Beste behin ederki kendu dio baloia Labaka gazteak, eta Larrañagari eman dio jokoa lasaituz. Realak kontrolpean du partida eta erraz ari da jokatzen. Larrañagak Aranbururi, Aranburuk hegaletik igotzen ari den Orbegozori... Imajinatzen? Lau azpeitiar Realaren lehen taldean elkarrekin jokatzen. Bi baziren behintzat, eta bi badira. Eta hori gertatzeko batetik bestera 19 urteko itxaronaldia egon da.

Juan Antonio Larrañagak eta Tomas Orbegozok Realaren aldirik gozoenak ezagutu zituzten. Mikel Aranburuk eta Mikel Labakak aurretik denbora asko daukate. Garai ezberdinak dira bata zein bestea, eta ordu batez, taldekide moduan, futbolari gainbegiratu eman zioten. Zubietan bildu genituen. "Jubeniletan Donostian, Mundaizen entrenatzen ginen, eta gero hipodromoan" dio Orbegozok. "Guk ere hipodromoa ezagutu genuen -esan du Aranburuk-. Gero Zubietan hasi ginen baina hau ere ordutik asko aldatu da. Momentu hauek Zubietan bezalako instalazio gutxi ikusten dira Espainiako Lehen Mailako beste klubetan". Larrañagak, berriz: "Egundoko aldaketa dago. Zubietan bera asko aldatu da, dena aldatu da. Baita Lehen Mailan ere. Gure fut-

bola askoz lasaiagoa zen, hau [Orbegozo] ziztu bizian ibiltzen zen arren. Futbola bera ez da aldatu; batez ere, abiadura aldatu da".

Horrela hasi ziren hizketan, aurrean Zubietako zelai berdea begiratzen zutela. Futbolari izatea ametsik ohikoena izango da munduan, eta baita bidean aurrera galtzen den azkarrenetakoa ere. Baina batzuek, agian onenek, zorte hori ezagutzen dute. "Futbolari izateko gogoia eduki behar da, eta ona izan", Orbegozoren hitzetan. "Gaztetatik norberak zerbait izan behar du, txikitatik hasten da egiten, ez da kolpera sortzen den zerbait. Lagunak ere pixka bat baztertu egin behar dira".

► **LAGUNAK.** Futbolak eragin handia du gizartearen handiegia, baina nola bizi dute jokalariek? Zer eman die bizimodu horrek? Lagunarte berria izateak ekartzen duen poza ematen die, halaxe nabarmendu du Labakak. "Gauza asko ematen ditu: lagunartea, jende berria ezagutzeko aukera, ni neuk Murtzia ezagutzeko aukera izan dut... Azken batean, bizitzeko modu bat da. Bizi osorako lagunak egiten dira. Behin denboraldia hasitakoan izaten dira lagunekin baino gehiago taldekide-

ekin egondako asteak". Utzitakoan, ordea, bide berrietan barrena abiatzen da jokalaria bakoitza, eta hor ere egiten dituzte benetako lagunak. "Betiko koadrila izaten da. Futbolearen jende askorekin ibiltzen zara eta momentuan denak dituzu lagun baina utzitakoan bi edo hiru izaten dira. Besteak ezagunak dira. Ni Donostian bizi naiz eta harremanak mantentzen ditut Arconada, Gorritz eta Dadierekin", dio Larrañagak. Orbegozok ere hark esana baieztatu du: "Guk zortea izan dugu; izan ere, beteranoek entrenamenduak egiten ditugu eta horrek harremanak mantentzea asko erraztu digu. Baina Larrañagak esan bezala, batzuk lagun eta beste batzuk ezagun izaten dira. Nik Zelaia, Gorritz, Gajate eta hauekin mantentzen dut harremana; gaizki inorekin ez gara ematen, behintzat". Gazteak izan eta oraindik futbolearen dabilzan arren, Aranburuk eta Labakak ere ezagutzen dute egoera. "Lagun batzuk bidean joan zaizkigu, bai kanpora joan direlako edo baita Lehenengo Maila jokatzerira iritsi ez direlako, eta bakarren batzuekin harreman ona mantentzen dugu; esaterako, Etxabe, Egurbide eta Sarriegirekin".

Realak aspaldian eman duen pozik handienetakoa duela bi ►

Orbegozo

Jaiotze data. 1959-08-19.
Debuta. 1981-10-21.
Urteak Realean. 1981-1985.
Postua. Erdilaria eta lateral.
Guztira jokatutako partidak. 117.
Golak. 2.
Beste taldeak. Sporting Gijon, Hercules eta Xerez.

Larrañaga

Jaiotze data. 1958-07-03.
Debuta. 1980-01-16.
Erretiroa. 1994.
Urteak Realean. 1980-1994.
Postua. Erdilaria eta liberoa.
Guztira jokatutako partidak. 589.
Golak. 22.
Beste taldeak. Ez du izan.



Aranburu

Jaiotze data. 1979-02-18.
Debuta. 1997-06-22.
Urteak Realean. 1999tik.
Postua. Erdilaria.
Guztira jokatutako partidak. 176.
Golak. 10.
Beste taldeak. Ez du izan, oraingoz.

Labaka

Jaiotze data. 1980-08-10.
Debuta. Oraindik ez du partida ofizialik jokatu.
Urteak Realean. 2004tik.
Postua. Zentrala.
Guztira jokatutako partidak. Batere ez.
Beste taldeak. Real Union eta Murtziako Hiria.



ZUBIETAN.

Realak entrenamendua bukatu ondoren bildu zen Uztarría laurekin, Zubietan; harmailetan eserita hizketaldi ederra izan genuen. Larrañagak eta Orbegozok oraindik buelta batzuk egiten dituzte hara.

“Maradona bera bakarrik zaintzen zen. Butragueño eta Hugo Sanchez zailago ziren zaintzeko”

TOMAS ORBEGOZO ▶

Realeko jokalaria ohia

“Normalean, badakizu uzteko garaia iristen ari zaizula baina beti nahi izaten duzu atzeratzea”

JUAN ANTONIO LARRAÑAGA ▶

Realeko jokalaria ohia

“Nire nahia, futbola utzitakoan kirola egiten jarraitzeko aukera izatea da, lesio larriarik izan gabe”

MIKEL ARANBURU ▶

Realeko jokalaria

“Esperientzia polita da, baina berriz ere kanpora joateko aukera izanez gero, ez nintzatekeen joango”

MIKEL LABAKA ▶

Realeko jokalaria

► urte egindako denboraldi bikain hura izan da: bigarren postuan geratu zen eta jarraitzaileek ilusio handiz ospatu zuten, Liga ez irabazi izanaren pena ere hor izan arren; Aranburuk guztia talde barrutik ikusteko aukera izan zuen. Larrañagak, berriz, lehenengo postua zer den ezagutu du: bi Liga irabazi zituen (1980-1981 eta 1981-1982an). “Nik bigarrenengoarekin gozatu nuen, lehenengoan azken hamar partidak jokatu nituelako eta bigarrenengoan denak. Hona etorri eta jendeak nola ospatu zuen izan zen ederra. Ez zen izan Liga irabaztea bakarrik. Aurreko Liga nola bukatu zen kontuan izanda [azken aurreko partidaren, Sevillan], jendea sentimendu hura kanpora ateratzeko gogoz zegoen. Ez dut inoiz ikusi eta ez ikusiko horrelakorik”.

Garai hark bazuen zer ospatua ere, frankismoaren ondorengo egoera eta gatazka politikoa gogorra zelako, baita askorentzat itxaropentsua ere. “1980-1981-ekoak osagai guztiak zituen. Politikoki ere ez zen erraza Realak

Liga irabaztea. Gainera, guk bi urtean lortu, eta segidan beste bitan Athleticetik irabazi zuen”. Aranburuk ere ospakizunari jarri zion arreta. “Gu *ian* ibili ginen, eta ez dakigu berriro horrelako aukerarik izango dugun. Alde batetik, pena dut hain gertu ibili ginelako baina, bestetik, pozik nago jendea gustura zegoelako. Guk egindako zerbaitekin jendea horrela ikusteak izugarritzko poza ematen du, eta, gutxi gorabehera, Liga irabaztea zer izango litzatekeen jakiteko balio izan dit”.

► AUKERATU BEHARRA.

Baina dena ez da poza eta ederra izaten futbolariarentzat ere. Une latzak pasatu behar izaten dituzte jokalaria batzuek. Erabakia hartu behar eta, agian, okerrekoa izango ote den beldur izango dira, etxetik urrutira joateak ez baitu erraza izan behar. “Lagunarte berria bilatzen da baina etxetik joatea tristeza izaten da. Lagun multzoak egoten dira eta, integratzen ez bazara, zaila izaten da aurrera egitea. Nik, berriz, aukera izango

banu, hemen geratuko nintzatekeen”, esan du Orbegozok Sporting Gijon taldera joan zen garaia gogoratu dituenean. Labakak iaz ezagutu zuen zer den kanpoan egotea. “Esperientzia gogorra da. Murtzia Hirian jokatzeko aukera nuela ikusten nuen eta horregatik joan nintzen; bestela, garbi dut hemen geratuko nintzela. Klub berri bat tokatu zitzaidan, oso ezberdina, sortu berria. Hasi eta berehala, berriz, lesio bat izan nuen, gero entrenatzaile aldaketak... Gogorra izan zen, bakarrik eta etxetik urritu zaudelako. Uste dut berriz ere aukera izanez gero, ez nintzatekeela joango, baina joan izana ez zait damutzen. Ikasi egin dut”. Larrañagak eta Aranburuk ez omen dute inoiz kanpora joateko aukerarik izan, nahiz eta Larrañagak bere garaian “zerbait entzun”; baina, urteak pasatu diren arren, ez du esan nahi zer entzun zuen.

Ine gogorrenetakoa, ordura arte gehien egin eta maite izan duten kirola uzteko garaia izaten da. Askori erabat aldatzen zaie

Datua ▶

19

URTE.

1980ko hamarkadatik hona, urte horiek guztiak pasatu dira Realaren lehen taldean bi jokalaria azpeitiar batera jokatzeko ikusi ahal izateko.



Koh Tao


OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)



KIRURI
JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62



LUBA

· AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
· FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

bizitza. Baina beti gorde nahi izaten da lotura bat. "Guk ez dugu erabakitzen noiz utzi, besteek erabakitzen dute. Futbola gustatzen zaionak jarraitu egin nahi izaten du, bidali artean", dio Orbegozok. Aranburuk arrazoia eman dio: "Orokorrean, bai. Gutxi izaten dira eurek erabakitzen dutenak noiz utzi; akaso, azken urtean asko jokatu eta gero...". Larrañagak 1995ean bizitakoa kontatu du, orduan utzi baitzion jokalaria izateari: "Normalean, badakizu uzteko denbora iristen ari zaizula baina beti nahi izaten duzu atzeratzea. Nik berandu utzi genuen, 35 urterekin. Halakoetan badakizu, segitzekotan, hurrengo denboraldia oparia izan litekeela".

Oroitzapen ederrak gordetzeko parada ere izan dute. Orbegozok Espainiako Superkupan Real Madrii 4-1 irabazi zien hura du gogoan, baina Uztarriak Atotxan Diego Armando Maradona zaindu zuen hartaz galdetu dio. "Hura bera bakarrik zaintzen zen. Erdian jokatzen zuen eta aukera asko ematen zituen baloia kentzeko; izan ere, bakarrik jokatzen zuen. Behin izkin egin eta berriro izkin egitea nahi izaten zuen, eta gu ere ez ginen herrenak. Zaintzeko Maradona baino zailago zirenak baziren: Butragueño eta Hugo Sanchez, adibidez. Azken hori zen niretzako zailena; area ertzean jokatzen zuen eta postura guztietan jotzen baloia".



► **REALA ETA EUSKARA.** "Tal-dean gero eta jokalaria atzerritar gutxiago egon, orduan eta hobeto, giroa hobea izaten delako eta jokatzeo aukera handiagoak ere bai. Denboraldi honetan euskaldun asko bildu dira, baina ez da erraza. Jokalarien postura bertakoein jokatzea izaten da, baina beste gauza bat da talde bezala zermailaeman behar den eta non egon nahi den". Larrañagak atzerritarren inguruan zuen iritzi horretaz baliatu ginen Real eta

euskara lotzeko aukerei buruz aitzeko. "Gu sartu ginenean bazeudean euskaldun batzuk, baina ez asko: Zelaieta, Alonso, Joxe Mari Bakero...", dio Larrañagak. Baina gaur egun bestelakoa da egoera, eta poztekoa ere bai, euskarak hamaikakoan eta aldageletan lekua irabazi baitu Realean. Hala diote azpeitiar gazteek: "Hau da euskaraz gehien egiten den garaia, baita zelaian ere. Errusiarrak [Valeri Karpin] ere harrituta dago zenbat jendeak hitz egiten duen

ikusita. Albertok eta De Paulak izan ezik —eta hauek ulertzen dute—, beste guztiok egiten dugu euskaraz. Gertatzen dena da askotan alboan ez dakien bat jarritz gero, errespetuz ez dugula egiten. Entrenatzaileek ere badakite, Lorenek izan ezik".

Horixe futbolariaren kronika. Iragina eta oraina une batzuez baturik. Aranburuk "desio" bat eskatzeko: "Futbola utzitakoan kirola egiten jarraitzeko aukera izatea da, lesio larririk izan gabe". ◀



kutxa

gizarte ekintza



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

EIBARKO EZKONTZA AZOKA 2004

Urriak 24 eta 25 - Eibarko Armeria Eskolan

EUSKAL HERRI OSOKO ERAKUSTARIAK

- ◆ Soprano eta dantza ikustaldiak
- ◆ Ezkongaien jantzien desfilea
- ◆ Kaba eta ezkontza tarten dastaketa



24 larunbata - 17:00etatik 21:00etara

25 igandea - 11:00etatik 14:00etara
17:00etatik 21:00etara


Sarrera kantoian, gasolindegia pareko atetik

BIKOTEENTZAT OPARIEN ZOZKETAK!

JUAN KARLOS ARRUTI 'PATERRA' ▶ preso

“Kartzelan egondako urteak ez ditut alferrik galdu”

▶ Testuak: Uztarria ▶ Argazkia: Uztarria



Datua ▶

15

URTE KARTZELAN.

Irailaren 16an 15 urte bete zituen kartzelan Juan Karlos Arruti *Patera*-k. Eta aurren 25 urte beteko dira herritik alde egin behar izan zuenetik.

Badira hamabost urte Iru-
nen Bentas auzoan Juan
Karlos Arruti *Patera* az-
peitiarra atxilotu eta gero kartzel-
laratu zutenetik, ETAKoa izatea le-
poratuta. Kartzela asko pasatu
ondoren, orain Cadizen (Espai-
nia) Puerto Santa Marian -han
ateratakoa da argazkia-. Uzta-
rriak galdera batzuk pasatu ziz-
kion idatziz, eta erantzun ditu.

**15 urte kartzelan. Ondo ani-
moz?**

Animo aldetik ondo nago, ez
dago zertan desanimatu, preso
politiko batek duen garrantzitsu-
na dut: herritarren elkartasuna.

**Moduloan beste euskal preso
batzuekin zaude. Lagungarri al
da hori?**

Zazpi preso politikorekin nago.
Espetxe denetan ez dute gure
zortetik, batzuk bakarrik daudela-
ko, eta, gainera, isolamenduan.

**Kartzelako bizia asko aldatu al
da?**



gure kolektiboaren aurka bultza ditzaketen egoerak dira; adibidez, martxoaren 11ren antzeko egoerak.

Nola bizi izan zenuen 11-M hura?

Tentsio izugarriaz; imagina eza-zue patio txiki batean irrati bat ordu laurdenero hildakoen kopurua nola ari den handitzen erretransmititzen ari dela eta preso guztiak patioako txokoetan txutxumutxuka gu izan garela komentatzen. Uneren batean oldartuko zaizkizula uste duzu. Horrelakoe-tan sentitzen den inpotentzia izugarria da.

Zein izan da kartzelarik gogorrena?

Ez dakit kartzela onik den, gaitz onik ez den bezala. Hala ere, kartzela honetan, Puerton, zuzendaritzarekin hitzartutakoa neurri batean behintzat, betetzen dute, eta hori oso garrantzitsua da.

Hamar kartzelan izan zaituzte. Nola bizi izan duzu sakabanaketa?

Beste lagun askok bezala, hainbat espetxe ezagutu ditut Espainiako Estatuan; Caravanchel, Meco, Valdemoro Puerto I eta II, Badajoz, Murtzia, Herrera, Almería eta Sevillan eduki naute. Frantziakoan, berriz: Paue, Tarbes eta Marseillan; Baionan ere bai. 1992an hilabetero aldatu ninduten espetxez, eta ez da erraza egoera horretara ohitzea, ez baitu ezer antolatzeke eta ezertan zentratzeke astirik ematen.

Zer da espetxean ikasi duzun gauzarik garrantzitsuena?

Espetxealdia ez dela bizitzako zati handi bat alferrik galtzea. Ez zait iruditzen 15 urte hauek alferrik galdu ditudanik. Etapa honetan borrokako beste fronte batean egotea tokatu zait, oso fronte berezia noski, baina alde horretatik nire bizitza beteta ikusten dut, ez dut hutsune nabarmenik sentitzen. Hala ere, pozik itzuluko naiz herrira, jakina.

Herritik 1.132 kilometrora zaude...

Baina azpeitiarren elkartasunak

Senideak

Kartzela eta sakabanaketa, *Paterra*-rentzat ez ezik, bere senideentzat ere eguneroko zigorra izan dira urte hauetan. Anaia Joxe eta arreba Maixolen hitzetan, bizipena urtez urte gogorragoa egin zaie. Hala ere, "Azpeitian duela 15 urte baino babestuago" sentitzen direla diote, "batik bat herriko gazteen aldetik jasotako laguntzagatik". Maixolek dioenez, "anaia 1979tik dago heritik kanpo, eta guretzat harrigarria da jende gaztea, gure anaia ezagutu ere egiten ez zuen, hura bisitatzea joaten hasi dela ikustea". Joxek gaineratzen duenez, "pozgarria" ere bai: "Badaude bisitarik gabe gelditzen diren presoak, herri bakoitzeko egoera ez delako bera. Gure anaia, berriz, astero izaten du bisita Cadizeko puntan". Juan Karlos anaia Euskal Herrian balego —"euskaldun bezala egon behar lukeen lekuan"—, egoera normalagoa litzatekeela diote: "Anaiak kartzela dago, baina horrek ez du esan nahi eskubiderik ez duenik".

Euskal Herritik hurbil mantentzen nau. Baina 1.132 kilometrora daude handik honaino astero bisitan etortzen direnak. Meritu izugarria dute.

Azpeitiko berri izaten al duzu?

Herriko ia kontu guztien berri dut. Ia-ia larunbatero bisita izateko zorte izugarria dut. Gainera, Uztarría eta *Azpeitian* zer? aldizkariak irakurtzen ditut, eta hainbatekin eskutitz harremana ere badut.

11 preso eta iheslari azpeitiar daude...

Asko. Horretara behartzen duen egoera lazgarria lehenbailehen amaituko ote da!

Senideek esan ohi dute berriek animoak eman beharrean, zuek ematen dizkiezuela.

Beharbada, guztiz asumitutako egoera bizi dugulako izango da.

Senideek, berriz, preso bat ikusten dute aurrean, horrek duen esanahiarekin eta sortzen dituen sentimenduekin.

Euskal preso politikoek kolektiboan egoteak zer aportatzen dizu? Zer onura ekartzen ditu?

Kolektiboa nortasun politikoaren bermea da, eta beharrezkoa dugun antolamendu politikoa eskaintzen digu espetxean. Gure artean eta etsaiaren aurrean elkartasuna ematen du.

Nola ikusten duzu zuk gaur egungo egoera politikoa?

Nahiko deskonfiantza sortzen duen une politikoa da. Alde bate-tik, badirudi abertzale guztiok bat gatzela gaur egungo marko politikoa agortutzat jotzean, baina, bestetik, gero esplikaezinak diren zailtasunak daude horri aurre egiteko adostasuna lortzeko. Zerbaiten hitzak eta ekintzak ez dazoz bat.

Euskal presoek zer parte izan beharko zenukete prozesu politikoan?

Foro eta eztabaida gune guztietan parte hartu beharko genuke, gure izaera politikoa aldarrikatuz eta horren inguruko ekarpenak eginez. Presoen izaera politikoa onartzea gatazkaren izaera politikoa onartzearen adinakoa da, eta urrats handia konponbidean.

Nondik etor liteke Euskal Herriko arazoaren konponbidea?

Soluzioaz hitz egitea ez da erraza, baina gehienek uste duten bezala, abertzaleen arteko behin betiko konpromisoa eta elkarlana beharko dira, baita estatuaren jarra-raldaketa ere noizbait.

Euskal presoen inguruan, herriari nahikoa egiten dela uste al duzu?

Ni oso harro nago azpeitiarren konpromiso mailarekin. Hemen-go kideek askotan aipatzen didate herriko konpromiso maila, eta poztekoa da.

Lan hori herri mailan eta instituzioen aldetik egiten al da?

Herria da betiere konprometitzen dena, eta ez instituzioak, galtzeko asko dute eta nonbait. ◀

Sakabanaketa hasierako erre-presio hura baretu zen, baina azkenaldian hainbat arlotan atzera egin dugu, eta horren adierazle da Madrilén sortu berri duten Zaintza Epaitegi Zentrala, presoen eskubideak zaintzeko baino gehiago Espetxeen Institutioaren erabaki murriztaileak babesteko baitago.

Zein izan da unerik zailena edo gogorrena?

Unerik zailenak preso sozialek



pasealekurik ez APAIZEK

Apaiz etxe asko dira herrian, eta orain arte bazuten apaizek euren izeneko pasealeku bat ere. Baina laster batean paseorik gabe geldituko dira

► Testuak eta argazkiak: Iñintza Agirretxe

Herrian bada desagertze-ar dagoen pasealeku bat, laneko pabilioi bat egin behar dutelako. Pasealekua-ren izena *Paseo de los Curas* da, baina aspaldian behintzat, ez da arimarik ibiltzen bideska horretan; are gutxiago orain, hasi direlako eraiste lanetan. Bidea Arce-lor enpresaren parean hasten da, Landetan, eta Errezilera joateko bidegurutzean bukatu. Azpeitiko-a ez da, ordea, Euskal Herrian apaizen omenez egindako pasealeku bakarra; esaterako, Donostian ere badabat.

Baina nondik datorkio izen hori bideari? Ez dago informazio zehatzik, baina garai batean han inguruan 6-7 bat apaiz bizi omen ziren, eta han ibiltzen omen ziren beren *biebrarioa*, paseatzerakoa- an eskuartearen izaten duten liburu txiki hori leitzen; horregatik izango dela diote batzuek.

Baina bada pasealeku bakarti hori, gazte denboran, beste zer-baiterako aprobetxatzen zuenik ere. Lehen, bikote gazteek bakarrik goxo-goxo egoteko eta euren kontu txikiak kontatzera joateko erabiltzen zuten lekuetako bat zen apaizen pasealekua...




BIDEA.

Desagertzeraz doazen lekuak dira. Hemen goiko argazkian, bide hasiera. Eskubian goian, botatako baserrietako bat; azpian, bide Erdiko iturria. Behean, sasiz estalita dauden harritzko banku bat.

► **EZEREZEAN.** Baina urteak pasatu ahal gaizak asko aldatu dira. Gaur egun, lehen zeuden bi baserriak –Errekalde eta Errekal-detxo– lurtean bildutako egur eta harriak besterik ez dira. Apaiz bidera sartzeko, berriz, aldameneko tailerreko norbait izan behar da; pasatzea “kanpokoentzat debekatua” dagoela dio bi baserrien artean dagoen kartelak.

Denbora aurrera doa, eta garai batean apaiz bidean *bekatuak* egiteko ziren harritzko bankuetan, orain sasiek zizta egiten dute. Eta Izarraitz eder-ederra ikusten zen lekutik, kea eta enpresa handiak bakarrik ikus daitezke orain. Azken batean, gero eta apaiz gutxiago dago inguruetan, eta haien izena daraman bide bat gutxiago izango da laster. ◀





EDERKI ZIHOAN KM 79-AN, ORAIN 25 URTE.

Ez dira alferrik pasatzen urteak! 1979an hirugarren aldiz ospatu ziren Kilometroak, urriaren 7an; eta Azpeitian, hain justu. Orain dela 25 urte, beraz. 2000an ere Azpeitian izan ziren Kilometroak, euri eta lokatz artean. 1979ko hartan 30.000 lagun bildu ziren (70.000 orain dela lau urte). Goiko argazkia, 1979ko Kilometroetakoa da, eta ume hura lasai ederrean zihoan; honezkero pasatuko zitzaion garaia aitaren bizkarrean ibiltzeko.

► Testua: Ihintza Agirretxe ► Argazkia: 'Argia'

Efemerideak ▶ hilabetea



Asteartero eiten den azokako argazki bat. UZTARRIA

dena herriaren MESEDERAKO

Komunak bota eta beste batzuk egin
umeentzat, azoka plaza estalia egin...

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarría)

1598-URRIAK 2 ▶

Izurritea. Izurritea zela kontuan izanik, herritar guztiak txandatzat guardiak egitea erabaki zen. Horrela egin nahi ez zuenak hiru erreale ordaindu beharko zituen, eta diru horrekin ordainduko zen bere hutsunea beteko zuena. Hauxe ere agindu zen: baserrietan bizi zirenei albistea pasatzea, etxean inor ez hartzeko esanez.



Komuna.

lurrera botatzea, eta jaso zitekeen materialarekin haurren eskolan komunak egitea.

1789-URRIAK 6 ▶

Azoka. Herri batzar nagusian ikusi zen egokia zela azoka bat izatea herrian, Tolosak, Segurak eta Bergarak zuten moduan, benetan ona izango zelako herritar guztientzat –janari eta aleak salduko ziren bertan–. Astean behin, asteartez, azoka egitea erabaki zen, erabakia hartu aurretik guztien iritzia jaso ondoren. Gaztelako Erret Kontseilu Nagusian baimena lortzeko, agintariei gestioak egiteko ahalmena eman zitzaion.

1940-URRIAK 7 ▶

Komunak. Aho batez erabaki zen Azoka plazan ziren komunak

1811-URRIAK 20 ▶

Desobedentzia. Alkateak jakinarazi zuen azken urtebete pasatxoan Joan Jose Iparragirre udaltzainak desobedentzia jarrera zera-mala, eta emandako arrazoiak gaizki harturik, herriaren alde ez zuela ezer egiten. Beste udaltzain bat izendatzea erabaki zen, eta eskaerak egin zituzten Joxe Gonzalok eta Joxe Agirrek; Joxe Gonzalo aukeratu zuten. ◀

Pertsonaia ▶

'EURI KONTUAK'.

Jose Luis Otamendi idazle azpeitiarrak *Euri kontuak* izenburupean bere lehen narrazio liburua aurkeztu zuen orain bost urte: 1999ko urriaren 21 ean. Aurretik hainbat poesia liburu zituen argitaratuak.

Datua ▶

10

URTE TREN MUSEOAK.

1994ko urriaren 4an bigarren eta azken fasea amaitu ondoren, Trenaren museoa inauguratu zen. Beraz, hamar urte beteko dira herriko tren museoa martxan dela. Gaur egun, Azpeititik Lasaorako ibilbidea egiten duen lurrinezko trena ere badu.



Argazkia ▶



ZEKORKETA.

1969. urteko urriaren 7an, zekorketa egin zen Atzegi Elkartearen alde herrian. Bertan parte hartu zutenak: Alfredo Urbina *El gran Babali*, Miguel Angel Iriarte *Miguelito Sarralle*, Iñaki Iztueta *Aia* eta Antonio *El Campión*-ek. Jende asko bildu zen zezen-plazan.

Kontua da... ▶

Gure baserriak



Imanol Elias
Odriozola

A maitzen ez den lana du nekazariak eguneroko bizitzan, nahiz eta azkenaldian zerbait erraztu. Ahalegin guztiak egin ondoren, eguraldiak lagundu behar lanaren ordaina jasotzeko. Horrela bizi da beti nekazaria, eta gauzak aldatzea zail dela garbi ikusten da, baldin behintzat eguraldia geure nahietara ez dugun bitartean; zaila benetan. Ez da asmoa guztia konpontzeko sistema magikoa ematea, baina bai historian izan den baserrien berri zerbait adieraztea.

Kontuan izanik bere jatorria agertuz, abizentzat hartu ohi zutela herrietako biztanleek beraien baserriaren deitura, agiri zaharretan agertzen diren datuak Azpeitiko herria sortu aurrekoak dira. 1300. urtean, 120 baserri ziren gutxi gorabehera.

Deitura berriak agertzen dira 1394. urtean, Aita Santuak parroko erretoretzarako Pelegrin Gomez izendatu eta herritarrek ez onartzean, zenbait biztan-

le eskomikatzean, 138 pertsona agertu ziren zerrendan. Suaren aurka eginiko baserrien elkarte sortzean, berriz, 1541n, 185 baserriren izenak agertzen dira. Elkartea bera berritzean, berriz, 1694. urtean, 256 baserrik osatzen zuten zerrenda.

Gehitzen joan ziren baserriak Azpeitian azken urte horietan; batez ere, herria bere lurak saldu beharrean aurkitu zenean zorrei aurre egiteko. Orduan jauntxoak ahalegindu ziren, beraien mesederako, baserri berriak eraiki eta errentan jartzen, askotan nekazariak urtean lor zezakeenaren erdia kobratuz.

Baina janaria izateko era bat zen nonbait; zail egiten zen baserria ez ezik sendia aurrera ateratzeko unea. Urteak geroago, 1830. urtean, 344 baserrietxe ziren herrian, beraietan 464 sukalde zirela. Nahiko garbi agertzen zen baserri batzuetan sendi bakar bat baino gehiago bizi zirela gaur egun bezala.

Garai bateko Azpeitia ▶ Eusebia Altolagirrek kontatua

ez da erraza **BIZITZA**

Ez da erraza izan Eusebiaren bizitza: umezurtz gelditu eta amona gogor baten ondoan bizi behar izan zuen ezkondu arte

▶ Testua: Ihintza Agirretxe

Izatez ez zen erraza izango orain hamarkada batzuk bizitza. Ez zen errazagoa izan Eusebia Altolagirrek izan zuena: 12 urte zituela hil zitzaizkion gurasoak eta ondoren aiton-amonaren etxean bizi behar izan zuen. "12 urte nituela umezurtz gelditu nintzen, ama eta aita hiru hilabeteren buruan hil zitzaizkidalako. Orduan aiton-amonaren etxera joan behar izan nuen bizitzera, Madalena auzora, nire anai-arrebekin batera".

Umezurtz gelditu zenean, eskola utzi behar izan zuen, baina ez ziola pena handirik eman esaten du. "Egia esan, ez nintzen oso eskola zalea. Eskolan Milagrosetan

ibiltzen nintzen, eta batuketak, kentetak eta biderketak egiten ikasi nuen, baina zatiketak egiten ez nuen ikasi. Ondoren, ezkondu eta gero ikasi nuen zatiketak egiten. Gizona garraiolaria zen eta haren kontuak egiten ikasi nuen zatiketak egiten".

Baina amonaren etxeko kontuak kontatzen hastean erabat al-

“Txerriak izaten genituen, baina hazi eta hil ondoren, amonak zatirik eskasena ematen zizkigun”

EUSEBIA ALTOLAGIRRE ▶ jubilatua



Madalena auzoa, orain urte asko.

datzen zaio aurpegia. Ez ditu oroitzen ederrak amonaren etxean bizitakoak. "Amona oso gogorra zen eta, gainera, zuhurra. Izatez ez genuen urik ere etxean, auzoko denek zuten, baina guk ez. Nik beti zapata pare bat erosteko esaten nion baina berak, han mesanotxe azpian banituela batzuk esaten zidan, baina auskalo noizkoak ziren", dio.

▶ **EZKONDU.** "Amonaren etxean bizi nintzela zoroan lanean gogor ikasi behar izan nuen. Egun guztian bertan jarduten genuen lanean, arto eta gari asko egiten genuen. Txerriak ere bagenituen, baina haiek hazi eta hil ondoren, zatirik onenak banatu egiten zituen amonak, eta gu beti zatirik eskasenekin gelditu behar".

Baina guztia ez da txarra izan Eusebia Altolagirreraren bizitzan. "23 urte nituela ezkondu nintzen, batik bat etxe hartatik irteke arren, nazkatuta bainengoen". Ordunik hona, sei seme-alaba eta beste hainbat iloba izan ditu, eta orain "gustura" bizi da. ◀



Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbul.-larrialdiak	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara (Herriak)	943 31 69 99
Deia (berriemailea)	943 72 57 75
DV (berriemailea)	943 15 09 94
Argia	943 37 15 45

LARRIALDIAK

112

Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemaile)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05
ALDERDI POLITIKOAK	
EAJ	81 55 70
Habea	15 72 00 (138)

EA
PSE-EE
PP

81 00 11	Antxieta Etxea	81 35 40
15 72 00	Kontseilua	943 59 12 00
15 72 00		

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarria Kultur Koor.	15 03 58

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Hitzeko Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	665 72 39 79

Farmaziak gauez ▶ urria

1-12-20

Beristain (Azpeitia).
943 81 19 49

4-5-27-28-29

Jaen (Azkoitia).
943 85 06 60

2-3-16-17-21

Etxebeste (Azpeitia).
943 81 59 74

13-17-23-24

Zulaika (Azpeitia).
943 15 03 34

6-7-8-30-31

Ruiz (Azkoitia).
943 85 19 66

9-10-25-26

Azpiazu (Azkoitia).
943 85 29 89

15-19

Aranburu (Azpeitia).
943 81 13 50



OLIO BILKETA.

Hilabeteko lehen asteartean herrian izaten da olio erabilia jasotzeko postua. 09:00etatik 13:00etara plaza Nagusian egoten da, eta 13:00etatik 14:00etara, berriz, Urrestillan. Jasotzen duten olio erabili horrekin, gasolina egiten dute ondoren.

Garraioa ▶

ALDALUR

85 27 18

EUSKO TREN

902 54 32 10

GUIPUZCOANA

85 11 59

PESA

21 26 99

PIPER ELK.

85 25 87

TAXIAK

81 13 07

ZAPO TXOKO

▶ Asteartea-ostirala:	17:00-20:30
▶ Larunbata:	16:00-20:30

Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

▶ Asteguna:	09:00-13:30
▶ Larunbata:	09:00-13:00

UDALTZAINGOA

▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

▶ Astelehena:	14:00-21:00
▶ Beste astegunak:	07:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Kanpoko igerilekua:	Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA


▶ Astelehena:	09:00-13:00, 15:00-21:00
▶ Beste astegunak:	15:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan:	astegunetan: 09:00-13:00

“Niri sakristatu lana betidanik gustatu izan zait”

▶ Testuak eta argazkiak: Ainitze Oruesagasti



TXIKITAKO AMETSA.

Igeri egitea zuen gogoko txikitik *Txermena*-k. “Amuko zubian ikasi nuen igerian; izan ere, zaharrek uretara botatzen gintuzten, eta esaten ziguten nahi bagenuen irteteko eta, bestela, bertan gelditzeko”. Hori dela-eta igeriarekin egiten omen zuen amets.

Inazio Odria *Txermena*-k 57 urte inguru daramatza eliza inguruan lanean. Orioko arraun klubeko eta Realeko bazkidea ere urte askoan bada.

Zer dela-eta sartu zinen sakristatu?

Txikitatik, 8 urte nituenetik 13 bitartean, monagillo ibili nintzen parrokian. Gero lanean hasi eta gutxiagotan bada ere, beti ibili izan naiz elizan laguntzen.

Zein da sakristatu baten lana?

Larunbat arratsaldetan eta igande goizetako elizkizunetarako parrokia prestatzen dut. Elizkizunetan poltsa pasatu, intsentsua eta aldarea prestatu... Niri lan hau betidanik gustatu izan zait; umetatik horrela ohitu naizelako igual, eta ahal dudan bitartean jarraituko dut, gainera.

Zaletasun handi gehiago badituzu...

Estropadak gustatzen zaizkit asko. Badira 15 urte Orioko bazkide naizela. Urtero bi elastiko eta bi txapel oparitzen dizkirate eta asko ditut, baina oparitu ere egiten ditut. Zaletasun hori txiki-txikitatik datorkit, aitarekin joaten nintzelako estropadak ikustera. Oraindik, urtero joaten naiz Donostiara; Oriora, ordea, ez naiz aspaldian joan.

Realeko bazkidea ere bazara...

Bai, 21 urte nituela, Madriletik etorri eta arrebak esan zidan erri-fa batean Realeko bazkide egitea tokatu zitzaiola. Horrela egin ninduen ni bazkide, eta oraindik jarraitzen dut. Lagunek esaten didate denbora batean utzi egin niola bazkide izateari, baina ni ez naiz gogorutzen.

Eta nondik datorkizu *Txermena* ezizena?

Osabari deitzen zioten *Txermena*. Gero ni ere hala deitzen hasi ziren. Ez da daukadan ezizen bakarra. *Perez*, *Potolo*, *Sakristaua*... ere deitzen didate. ◀

Zaindu ▶ Kaparra

Julian
Bereziartua



Kaparra deitzen den araknido honen izate hutsak, inguru zikina dagoela adierazten du. Marmorro honen zitzadak ugaritu egin dira, asteburuetan mendiko ibilaldiak ugaritu diren heinean.

30.000 araknido ezberdin daude, eta horien artekoak dira akaroak, armiarmak eta eskorpioiak. Gure gaurko gaia, kaparra, mendiko sastraka artean eta txakurtegietan bizi da. Hasieran, inurriaren antzekoa da eta abere edo pertsonen galtzarbean, iztar-rondoan edo zilbor inguruan kokatu eta odola xurgatuz ikaragarri hazten da, ezkuraren tamaina artzeraino eta ondoren erori egiten da. Ez dugu beldurtu behar marmorro horiek soinean ditugula konturatzean, baina sendo heldu eta atera egin behar ditugu, gehiegi estutu gabe, azalean hondarrak gelditu ez dadin.

Gehienetan gure inguruan dugun abere bategatik etortzen zaigu: ardi eta txakurrengatik. Kontuan izan behar dugu, gaur egun parasito horiek lindanoz hiltzea erraza dela.

Gure inguruan hiru kapar mota daude; ezagunena beltza da. Zitzadak normalean ez du eraginik, baina, hala ere, meningitisa eta entzefalitisa inoiz azaldu izan dira, baita beste zenbait infekzio ere.

Dudarik gabe, susmoa dagoe-nean, prebentzioa da garrantzitsuena.

DIEGO CRUZ ▶ margolaria

Pintore bat?

Rembrandt.

Obra bat?

Rembrandten auto erretratua.

Koadro abstraktua edo figuratiboa?

Biak.

Ikasi edo irakatsi?

Ikasi.

Oleoarekin edo akuarelekin?

Oleoarekin.

Txuri-beltzean edo koloretan?

Koloretan.

Garai bat?

Errenazimendua.

Pintatzeko leku bat?

Edozein estudio.

Paisaiak edo pertsonak?

Pertsonak.

Eta modelotzat zein?

Edozein giza figura.

Edonor izan al daiteke pintore?

Bai, ikasi egiten da.



▶ Testua eta argazkia: Ihintza Agirretxe

Abizena ▶ Lazkano

Historia.

Lazkaoko jauregia. Oso familia zaharra, oñaztarrren bandokoa, eta Gipuzkoako familiarik aberats eta indartsuenetakoa izandakoa. Nafarroako eta Gaztelako erregeen ahaideak ziren.

Banaketa semantikoa.

▶ Aski edo azki + -ano atzizkia.

Aurretik L bat duela.

Esanahia.

Aski lekua.

Abizenaren kokapena.

▶ Arroa .

▶ Ataun.

▶ Zegama.

▶ Barandio.

▶ Berganza.

Abizenaren hedapena.

▶ Azpeitia (1764).

▶ Tolosa (1651).

▶ Arrasate (1694).

▶ Urretxu (1680).

▶ Azkoitia (1622).

▶ Getaria (1771).

▶ Berastegi (1628).

▶ Deba (1817).

▶ Zestoa (1609, 1711, 1724, 1749).



Esandakoa ▶

“Gaur egun frogatuta daukagu Azpeitian jendea ogia erostera ere kotxean joaten dela”

ANDER IRAZUSTA ▶

ingurumenean aditua

“Bertso eskolan ez naiz sekula ibili, baina parrandetan, beste asko bezala, kantatzen aproba egindakoa naiz”

LAXARO AZKUNE ▶

bertso gai-jartzailea

Zenbat ▶

7.882

IBILGAILU.

2003ko abenduan 7.882 kotxe, motor, kamioi, traktore... zeuden erregistratuta Azpeitian. Goraka doan kopurua da.

K
CONSTRUCCIONES
ANTZIBAR
ERAIKUNTZAK

K
HORMIGONES
LAZKANO
HORMIGONIAK

Gertuko pasadizoa ▶

filme

ULERTEZINAK

'Kontxu Odriozola' liburutik
hartua ▶ Argitaratzailea: Azpeitiko
Udala ▶ 2002 ▶ Egilea: Pako Aristi

**KAPITULUA ▶ Aste osoa irauten zuen
filmeak (9. orrialdea)**

"Letzeko gogoa ikaragarria neukan. Nik ametsa erraza izan dut, imajinazioa eduki dut, eta denak balio zidan mundu bat sortzeko, istorio bat asmatzeko, zer pasatuko litzaidakeen imajinatzeko. Nik uste gaur ez ote garen umeak oso matematiko egiten ari, eta imajinazioa moztzen, zeren ordu guztietan zerbait jartzen diegu. Guk eskola obligazioa genuen, baina handik irtendakoan bizi egiten ginen, geure mundu bat geneukan, eta mundu hori geure erara antolatzen genuen, eta mundu hori geure erara antolatzen genuen. Oraingo umei dena antolatu egiten diegu, eta umeak

jolas egin behar du, bere lagunekin beste mundu bat asmatu eta antolatu, gaur hori ez dute egiten". (...)

Kontxu beste garai batekoa dugu: eskola amaitutakoan umeak jolasera ateratzen ziren garaioa, eta hori eskertzen du. "Nik ulertzen dut eskolaz aparte bizitzak beste eskola bat ematen dizula, eta hori aktore batentzat oso ona da. Nik aktore bat ikusten dudanean eskolan bakarrik ibilitakoa, eta txiki-txikitatik bere etxean sufritu ez duena, hark pertsonaje bat egiteko orduan beste era batera egingo du, faltako zaio benetakotasuna, indarra, sakontasuna".

Horra aktorearen laugarren oinarria: senti-

menduak ezagutzea, bere baitan errekonozitzea, eta gero atera behar direnean sentimendu horiek zer adierazten duten jakitea. Zineari begira ere asko ikasi zuen Kontxuk bere gaztaro hartan.

Aste osoa zain egoten zen zine parrokiak ikusteko, igandetan, arratsaldeko hiru eta erdietako saioan. "Zinea erdaraz izaten zen, eta guk gure bizitza guztia euskaraz egiten genuen, eta ez genuen zinea ezer ulertzen. Bukatutakoan koadrila osoa egoten ginen eztabaidatzen, hura izaten zen gure zine-foruma. Ea neskak zer esan zion mutilari etxera etorri zenean, nik uste diñat halako esan diola, ba nik uste bestelako... aste osoa irauten zigun pelikulak, hurrengo igandera arte, aklatatu ezinda ibiltzen ginen. Baina azkenerako nik uste denon artean deszifratzen gurela argumentu guztia".

Telebistatik ez zegoen garai batez ari gara hizketan. Nodoak ere zuri-beltzean ziren, eta jende haren bizitza zuri-beltzean gertatzen zela iruditzen zaigu orain, triste samar edo. Kontxu ez zen geldirik egotekoa; hark asmatu zuen, aurkitu zuen bere bizitza grisa aldatzeko modua: titiritera egingo zen, eta kito. Berari erabiltzea asko gustatzen zaion hitza da: 'titiritera'. ◀



 **ostadar optika**
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA


Clamendi
Batxi Benda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

 **TORREALDAY**
aholkulari kontseilarak

Iberotarren plaza, 7 behe
Tfnoa.: 943 15 05 09
Faxa: 943 15 16 74
azpeitia@atctorrealdays.com

 **PEMEC**

 **domusa**

 **PEUGEOT**

AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

 **kitzika joyeria**

Brilanteak - Urre Zuria eta Oria - Festina Urrea
Pastorleua Tabernaren ondoan
Jose Artetxe, 13 - Tel. 943.15.76.13 - AZPEITIA

Irudiek, laurgi balararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak
egiten dira



81 53 35

Hitz gezidunak ▶

	Landare xehe		Gura		Handi		Nekatu		Una
	Besaburua		Atzikia		Aldia		Piztua		
	Sasiak								
	Pl., sukalde ontzia								
Prakak		Haur hizk., musu		Hedabide mota					
Hondamena		* AUZOA		Erraz, aise					
					Adi ezazu!				Esparru
					Boroa				
Infin., lortu			Igarobide				Bokala		Bokala
Belarriko gaitz			Atomo kargaduna				Toka, zaizu		Ez eme
					Bizkor				
					Portu				
Pl., hegazti mota						Interjekzioa			
Lirain						Hektarea			
				Ore jangarria				1000	
				Kontsonantea				Sufrea	
Beldurtiak, izutiak							Gar		

* Herriko auzoa

Pasarte kodetua ▶



Aitor Arana idazle legazpiarren pasarte bat (*Ipuin ilunak*, 1995) azalduko zaizu ondoko lauki guztiak bete ondoan. Joko honetan, zenbakiak hartu dute letra edo hizkien ordea. Letra bat, zeinek berea, hartzen du gehienez zenbaki bakoitzak, eta batzuetan ez dira letra guztiak azaltzen. Zenbaki batzuei dagozkien letrak eman ditugu lagungarri gisa.

E		N					T		
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
A					I		U		
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20


20	7	19	8	16		8	2	12		2	1	16
	11	19	14	19	20	16	14	14	7	16		2
8		8	2	12		19	12	7	12	9	19	4
	19	12	7	14	16		19	12	20	13	14	13
4	7		1	15	7	14	19		11	16	4	16
14	14	16		3	13	19	12	7	2	1	16	4
7		6	16	14	19	8	1	19	2	1	16	1
19	4		1	15	19	7	1	15	19	19		6
7	1	5		6	16	12	9	19	16		16	16
19	8	2	1	7	14	14	2	12				

Soluzioak ▶

Zein da hau? ▶

HITZ GEZIDUNAK

U	S	●	K	A	I	A	T	A	K	A	K	●
M	●	A	I	H	A	●	I	A	L	A	G	
E	R	I	A	●	K	A	O	Z	O	Z	●	
R	A	K	Z	A	●	S	I	T	I	O	T	●
E	●	E	●	I	B	I	●	R	O	L	●	
●	U	Z	I	A	●	A	R	E	A	L	G	
I	T	A	R	I	R	●	P	A	●	G	●	
K	A	R	A	H	A	L	●					
A	N	A	I	A	G	A	S	E	B			
●	U	●	L	●	N	●	B	●				



PASARTE KODETUA

hots handia baizetorren". Aitor Arana

"Goiza zen eta birigarroa ez zen inondik inora inguru-ko txori bakarra, muinoetako hariztietatik txio-txio-

UZTARRIAREN MAIATZEKO ARGAZKI LEHIAKETA

non dago irudi hau?



Loiolan



irabazlea



Itsaso Belar Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 54. irabazlea. **Romaes dendako** erosketa txartela irabazi du sari gisa. Argazkian, Itsaso —ezkerrean— eta Romaes dendakoa.

ERANTZUTEKO EPEA ▶

Urriak 22 (ostirala)

NORA BIDALI ▶

Julian Elorza Hiribidea 4, behea

ZER TOKI DEN ADIERAZI ▶

ZURE IZENA / TELEFONOA ▶

IRABAZLEARI SARIA ▶

Erosketa txartela (Urrestilla)

PARTE HARTZEKO

BALDINTZA ▶

Uztarrian bazkide izan behar da



PILDAIN
Inmobiliaria

Harzubia 6, behea
Tl. 943812167 - Fax: 943150774
e-mail: iavier@pildaininmobiliaria.com

Amenabar
D E N D A

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97



ARTE
ETA DISEINU
IKASTEGIA

> Talla 19:30/21:00
> Pintura
(helduak) 17:30/19:00
> Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Ikasturte hasiera: urriak 4
Matrikula: 17:30etatik 19:00etara,
astelehenetik ostegunera

Julian Elorza 4 - 1
669 414 025
beapozo@euskalnet.net

DIETETIKA ETA ELIKADURA
AHOLKULARITZA



LEIRE EZKURRA

dieta pertsonalizatuak

"osasuntsu jaten ikasi"

JONE ETA MAIKAR
Julian Elorza, 7
Tel 943 81 38 98



- Dieta pertsonalizatuak
- Kontsulta naturista
- Elikagari biologikoak
- Kirolarientzat elikadura
- Kosmetika naturala

Jose Artetxe, 8 Telf: 943 81 27 50



Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
zerbitzua mugu



Tel. 943 81 51 87
Loiolabide, 25

ANDRES GARCIA ▶ medikua Azpeitiko anbulatorioan

“Medikuok ari gara Azpeitian euskaraz ikastera animatzen”

▶ Testua eta argazkia: Ihintza Agirretxe



Andres Garcia medikuak 13 urte daramatza gure artean. Jaiotzez bilbotarra da eta orain dela gutxi behin betiko euskaraz ongi ikasteko pausoa eman du.

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Betidanik saiatu izan naiz euska-

Datua ▶

8

HILABETE HORRETARA.

Euskaltegi batean aritu da Garcia medikua euskaraz ikasten. Eta ikasi du. Saiatuta.

raz ikasten neure aldetik, baina azken pausoa orain gutxi eman dut, euskaltegi batean.

Nolatan pauso hori orain?

Beti saiatu izan naiz euskaraz komunikatzen, nahiz eta akatsak egin. Azkenean pentsatu nuen banuela garaia euskaraz ongi ikasteko; izan ere, Euskal Herri osoan, eta zer esanik ez Azpeitian, garrantzitsua da euskaraz jakitea. Gainera, alaba txiki bat dut eta euskalduna da eta, alde horretatik ere, ikasi egin behar nuela sentitu nuen.

Azpeitiko anbulatorioan zuzendari izana zara. Saiatu al zinen zerbait egiten euskararen alde?

Hemengo zuzendaria izan arren, ahalmen txikia izaten da eskuartean. Gehienbat, jendeak liberazioa hartu eta euskara ikastera joateko animatzen saiatu nintzen.

Eta balio izan al zuen?

Nahiz eta pentsatu euskara ikasteko liberazioa hartuko duzula eta liberazio hori eskatu, gero Gasteizen erabakitzen dute eman ala ez. Orain hemengo bi erizain daude ikasten, eta laster beste mediku bat joango da. Pixkanaka ari da jendea animatzen.

Garrantzitsua al da osasungintza euskaratzea?

Behar-beharrezkoa da. Dena harreman kontua da, eta hemen, Azpeitian, elkarren artean euskaraz egiten da, eta osasungintzan ere hala beharko luke.

Zein da gaur egunean anbulategiko egoera herrian?

Administrazioan denek dakite euskaraz. Medikuen artean zazpiti lau euskaldunak gara.

Osasungintza euskalduntzeko zein da irtenbidea?

Nahiz eta gu saiatu, gero horrek posible izan behar du, eta horretarako administrazioak dirua inbertitu behar du. Askotan aurrekontua txikia izaten da eta mediku gutxi lortzen dute liberazioa. ◀

Bota lasai ▶ (www.uztarria.com/euskara)

Azpeitia, irratia, euskara

 Normala al da Azpeitian, igerilekuan, Radio Nacional piztuta izatea bertako langileek? Edo Los 40 principales? Edo Radio Euskadi?...

▶ Pello

Iritzi horren erantzunak

Gora Radio Nacional

Normala ez dena zera da, anormala dena normal bihurtu nahi izatea. Nik lan egiten dudana tokian Euskadi Irratia izaten dugu eta nazka-nazka eginda egoten

naiz. Nik Radio Nacional entzuten dut gustura. Baina ez erdaraz delako, ona delako baizik. Ah, eta igerilekuan zer irrati jarri behar duten ere erabiltzaileek erabaki behar badute, ba zer esango dizuet, egin bilera bat.

▶ Joxe

Ez daude etxean

Erakunde publikoetako langileek nahi dutena egin dezatela etxean. Baina erakunde horiek herriarenak dira, eta hor, irratia piztuta izatean ere, euskararen alde pausoak eman behar dira.

▶ Amaia

Zer dio? ▶ Jose Luis Otamendi (idazlea)

Igande goiza Basaburuan

Triste argitu zuen joan den irailaren 19a, goiz iluna eta bustia atera zuen zeharo. Gartzaron herria (Gartzarun moduan ere ageri dena) zenik ere ez nekien nik ordura arte. Esku pilota txapelketa antolatzen dute bertan eta ehunetik gora bikotek hartu dute parte. Herri txikia da, beste hamarrek batera Basaburua udalerriko kontzejuko parte. Euskalduna da erabat ehun jendera iristen ez omen den herri hori, eta erdalduna ere bai, noski, esan gabe doa, aspaldi ez baitago erdaldun ez den euskaldunik.

Zahar eta gazte, pilota partiden karietara frontoiak bildu zuen ikuslego aukeratua. Nafarrak gehienak, gipuzkoarrak dezente eta bizkaitar ale bakanen batzuk. Gizonezko urtetsu batek pilotari gazteen dohainen gainean laudorioak esaten hasteaz batera, eta nik ongi ulertzen ote nion asmatu ezinik, tanpez egin zidan galdera: “¿Vasco?” Euskaraz erantzun nion, baina neure jardunaren moztasunak eta adierazkortasun kamutsak hozturik-edo aurki jo zuen beste jende talde etxeago batengana.

Bi ordurik ez genituen egingo perretxiko biltzaileen paradisu behar duten inguru haietan. Bukolismo ezti batek edertutako soroak, harritzko etxeak, ganadua frontoi ondoko plazan, askan ura edaten, eta euskara bizia airean: diosalak, agurreko hitzak, hango pilotazaleen iji eta ajak, kirolari gazteentzat animoak... Mundu bat.

Adeitsu, gozo eta jendetasunez hartzen dizute kanpotarra. Euskara bezain dantzari entzuten diezu bertakoei gaztelarazko mintzoa. Librea, jauzkaria. Eta zeurekiko diozu elkarren artean ere euskaraz asko, baina barruan darmanan salatariak ohartarazi dit aise egiten

dutela erdarara, berdin bertako euskaldunarekin nola bisitan etorritakoarekin. Modu ikaragarri naturalean nahasten dituztela hizkuntza biak solasean, mintzaira bakarreko parte balira bezala.

Pentsatzen jarri naiz zenbat aldiz ez ote dugun geure burua antzeko ateka gaiztoan harrapatu, graziazuen esaera bat dela, ñabardura distiratsuko ateraldia, interjekzio sentitua edo pasadizo bat erdararen bixigarriarekin ematen. Ez daukat damutzekotzat. Bistan da, itsaso sakon bat dago erdararen atzean, baso itzaltsu bat hiztunaren jardunari arnasa ematen etengabe, ebakitako hitz bakoitza esanahiz betetzen, indartzen. Mundu oparo bat.

▶ **DENBORA GUTXI.** Egoera soziolinguistiko baten biktimak, bera baino okerrago ikusi uste duenaren alboan gurasokeria libre duela iruditzen zaio, erruki antza sentitzea zilegi dela. “Zuek harrapatu zaituzten gaitzak ez gaitik gu berehalakoan joko” esanez bezala goitik behera begiratzen diegula. Baina bururatzen zait denboraren tunelean aurrera egitearen antzeko txangoa ere izan zela ordubetea Gartzaroneraino egin genuena, eta erronka eta harrokerietarako motibo gutxi dugula utzi zigula argi nahi gabe bezala, eta denborak ez duela nagia alde ordu txikia besterik jotzen. Espabilatu edo ezer ez dagoenean ez *ba bilatu*.

Euskaldunok askotan euskara errazegi erabiltzen ote dugun, zabarregi, garena baino ikasiagoak ez bagina bezala, eta gure jardunaren txirotasunak eta itxitasunak euskara batuan beharrean gaztelania batuan hitz egitera jartzen gaitu euskaldunarekin. Gartzarongo agure hark ez zuen akrobazia bitxietan erasakin egiten nahiko; hitz egitearekin aski.

“¿Vasco?” galdetu, eta erdara hartzen dugu zubi eta zurubi.

Arrazoi dute ibili egin behar dela diotenak, bazterrak ezagutu eta irakurri. Baina hain aterpe gozoan bizi gara geure Urolako arkadia txikian, hain hitz errazeko... Hala ere, nik ez dut Arroa Behean edo Elosun muga duen erreserba batean bizi nahi. Euskaldun izan nahi nuke, eta mundutar. Eta aurren-aurrea euskarak tresna baliagarria gertatu behar du euskaldun artean idorria gehiegizkorik gabe komunikatzeko. Neure txokotik kanpoko euskaldunarekin, euskararen unibertso horretan eroso ibiltzeko ez badit balio, bada ondo ez dabilkidan zerbait. Nire hizkuntza eta nire euskaltasuna herrienak direlako seinaletzat daukat.

Euskararentzat ere mundu bat nahi dugu, euskara mundutar bat. Doazela apapa txokkeriaz harropuzten diren urolismo guztiak, gure herrien eta bailaren mapak berri beharrean gara Gartzaron ere bere baitan hardezaten, Urolatik Euskal Herrira jauzi egiteko. Euskarazko kultura bazkatu behar dugu, bai, baina mundutar den heinean, ez euskarazkoa delako. *Berria* egunkariak euskaldun eta mundutar egiten gaitu, egunero paperezko aberri bat ematen digu, bertan bizitzeko modukoa. Baina egunkari batek ezin du izan jendea bizitzeko Israel berri bat, komunikabideak, erakundeak, lan mundua, politika... premiazko auzoak ditu gure *gurazko aberriak*.

Lainoitsuak eta euriak ekarri gintuen etxera partida irabaztera joan eta partida jokatuta.

Igandea azkenetan zela, ohetik gelako sabaira begira jarrita asteleheneko pendiza besterik ikusten ez nuenean, artean goizeko galderak eztarria eta urdail zuloa urratzen zizkidan: “¿Vasco?”.

Euskararen gorabeherak ▶

Artikuluak: KOP.:

DIEZMO (erreserba)	DIEZMO (kriantza)
COTO (kriantza)	ALBERDI (kriantza)
BELTZA (kriantza)	GORRIA
TXAKOLINA	SAGARDOA
TXANPAINA	SAGARDO TXOTXA
BELTZA URTEKOA	



GORA. Diru kontuak euskaraz Oilo-Soron

Oilo-Soro soziedadean (eta beste bakarren baten) euskaraz ordaintzen dute bazkideek, diru kontuak egiteko makinaren funtzionamendua euskaraz dutelako.



BEHERA. Zezenketako sarrerak eta pankarta

Batzuk zezenketen alde, besteak kontra... Eta bi ekimenen antolatzaileak erdaraz: zezenketen arduradunak sarreratan eta kontrakoak pankartan. Ados jarri ziren...



Behatokia ▶ (euskararen eskubideen urraketak salatu ahal izateko telefono zenbaki berezia)

902 19 43 32

Eskubidea ▶

“Eskubidea dugu euskaraz ikasteko, ikasketa eta prestakuntza maila guztietan (haur, lehen eta bigarren hezkuntza, lanbide heziketa, ikasketa unibertsitarioak eta ikerketa maila), inolako murritzetarik gabe”

Euskal Herrian Euskarazen 'Bidea' eskuliburutik hartua; Uztarrin dago edonoren eskura

Albisteak ▶

Abizenak euskalduntzeko zerbitzua martxan

Uztarrak abizenak euskalduntzeko zerbitzua martxan jarri zuen eta horrekin segitzen du. Izan ere, Azpeitian asko dira oraindik euskal abizenak erdal grafiaz dituztenak: Aguirre, Echeverria, Lopetegui... eta bada astebeteren buruan euskarazko grafiaz jartzeko aukerarik.

▶ Tokia. Uztariako egoitzara etorri (Julian Elorza Hiribidea 4 behea).

▶ Noiz. Ostiraletan 12:00etatik 13:00etara bitartean.

▶ Ekarri beharrekoa. Nortasun agiria (N.A.N.).



www.lasao.com



Pubesa
gazte moda

**DESBERDINDU ZAITEZ!!!
BAITA UDAZKENEAN
ETA
NEGUAN ERE**

Xanjuandei auzuen gatxaude
Urbitarte,
Tel.: 943 15136
AZPEITIA

Sare@informatika
Telekomunikazio Zerbitzuak & Informatika



Eskaintzen ditugun zerbitzuak eta produktuak

Ordenagailuen eta portatilen salmenta



Markako PC-ak

Gure markako PC-ak

Portatila

Informatika zerbitzu teknikoak



Zerbitzu Tekniko azkarra

Mantenu Kontratuak

Periferikoen salmenta eta konponketak



Multifuntzioak

Formatu handiko inprimagailuak

Laserak

Sare informatikoen instalazio eta kudeaketa



Sareen diseinua eta muntatzea

Sareen mantenua

Serbitzariak

Kontabilitate kudeatze programen ezartzea



Kudeaketa programak

Kontabilitate

Nominek

WEB orrien diseinua eta mantenua



MacroWeb 2002 Corporate

MacroWeb 2001 Tienda

MacroWeb 2001 Escaparte

Erregistratzaile, balantza eta TPVen salmenta



Informatika aholkularitza



Euskaltel Leihoa



**Komunikazio osoa puntu bakarrean,
zure etxean**

- Nahi beste dei probintzia barruan hilean 7 €

- 24 orduko tarifa finkoa 22 €

- Goi mailako irudi kalitatea eta 17 kanal



Azpeitia
Pablo VI 19 behea
943 157 321

Azkoitia
Julio Urkixo 10 behea
Telf: 943 85 36 60

Zarautz
Kale Nagusia 1 Behea
Telf: 943133385

Banatzaile Ofiziala
Euskaltel